

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

6448

*AGINDUA, 2021eko abenduaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuetan ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzen 2022ko ekitaldiko deialdia, entitate pribatuei zuzendua (Erein Pribatuak).*

Landa-garapena landa-eremuak hazi eta suspertzeko prozesutzat har dezakegu, biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzeko, funtsezko hainbat ardatzen bidez, hala nola, ardatz ekonomikoa, sozio-kulturala, ingurumenekoa, etab. Hala, Administrazio honen politikaren helburuak beti izan dira, besteak beste, biztanleen bizi-kalitatea hobetzea, euskal nekazaritzaren eta, oro har, landa-ingurunearen funtzioaniztasuna eta jasangarritasuna bermatzea eta sustatzea arlo ekonomikoan, sozialean, ingurumenekoa eta kulturean, euskal nekazaritzaren errealitatera eta ezaugarrietara egokitutako eredia diseinatuz, despopulazte- eta uzte-prozesuak geldiaraziz, eta landa-munduaren eta kultura-munduaren arteko elkarreragina sustatuz. Gure landa-eremuen garapenak endogenoa izan behar du; hau da, tokiko espezifikotasunari egokitua, tokiko biztanleek planifikatua, egikaritua eta administratua.

Hala landa-garapenaren helburu orokorrak, nola berariazkoak Landa Garapenari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legean jaso ziren. Lege hori da, orain arte, Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez, arlo horretan eskumena duen saila den aldetik, egikaritzen dituen politiken ardatz nagusia.

Beraz, sail hori izan da Euskal Autonomia Erkidegoan aspalditik kudeatzen ari diren landa-garapenerako laguntzen deialdiak bultzatzen dituen organoa. Beste behin ere, eta beharrezko, bidezko eta ezinbestekoa den landa-garapen horretan laguntzen jarraitzeko, 2022ko ekitaldirako laguntza-deialdia egin da, landa-ekonomia dibertsifikatzeko, eremu horretan enplegua sustatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak garatzeko.

«Landa Eremuen Definizio Teknikoa» azterlanaren arabera G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuei zuzenduta dago agindu hau (<https://www.euskadi.eus/eaeko-landa-eremuak-zehaztea-2015-2020/web01-a2lanits/eu/>), eta bertan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten entitate pribatuak izan ahal izango dira horren onuradun.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak honi jarraikiz emango dira: 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeko; laguntza, gehienez, 200.000 eurokoa izango da enpresa bakoitzeko, hiru zerga-ekitalditan.

Agindu honetako deialdiko dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa da kreditu egokia eta behar bestekoa izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022. urteko aurrekontu orokorretan, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioeko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan.

Horiek horrela, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea, izaera eta esparru geografikoa.

1.– Agindu honen xedea da 2022ko ekitaldirako dirulaguntza deialdi bat egitea, G4, G5 eta G6 landatartasun-mailako landa-eremuen ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko. Eredu horiek «Landa Eremuen Definizio Teknikoa» azterlanean daude zehaztuta, eta agindu honen I. eranskinean daude jasota.

2.– Agindu honen babespean ematen diren laguntzak ez dira itzuli beharrekoak izango.

Bigarrena.– Laguntza motak eta onuradunak.

1.– Laguntzaren xede izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan enpleguari eusten eta hura hazten laguntzen duten eta nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortzeko eta garatzeko egiten diren inbertsio-modalitate hauek:

a) Nekazaritza-sektorearekin lotuta ez dauden jarduerak, baina sektore hori dibertsifikatzen dutenak. «Nekazaritza» kontzeptuak barne hartzen du nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa eta basakoa dena, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4. artikuluko 1. apartatuarekin bat etorriz. Onuradunaren lanbide nagusiak nekazaritza izan behar du, abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4. artikuluko 14. apartatuan zehaztutakoaren arabera.

b) Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak eratu eta garatzea, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak egiten duen definizioaren arabera, bigarren eta hirugarren sektoreetako edozein eratako enpresak eratu eta sortzea eta autonomoetan alta emandako pertsona fisikoek garatutako proiektuak egitea, non eta inbertsioak ez diren bideratzen nekazaritzako produktuak eta elikagaiak ekoiztera, eraldatzera eta merkaturatzera. Garapen gisa ulertuko da produktibitatea gehitzen duen edo ekoizpen- edo negozio-ildo berria dakarren inbertsio oro. Laguntza-lerro honen onuradun izan daitezke deialdi honen xede diren landa-eremuetan kokatutako enpresak.

c) Enpleguaren sorrera garbia. Laguntza horien onuradun izan ahalko dira mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak, baldin eta nekazaritza-arlokoak ez badira eta landa-eremuetan kokatzen badira. Nolanahi ere, kasu bakoitzean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan xedatutako lanaldiaren % 50eko enplegua izan beharko da, gutxienez. Era berean, laguntzak jaso ahalko dituzte enpresa-izaera hartuko duten pertsona fisiko langabeek, baldin eta deialdi honen xede diren landa-eremuetan bizi badira eta nekazaritzakoa izango ez den beren autoenplegua sortuko duen proiektu bati ekiten badiote.

2.– Laguntzen onuradun izan ahalko dira nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeak, ondasun-erkidegoak edo, nortasun juridikorik eduki gabe ere, proiektuak eta jarduerak aurrera eramanez unitate ekonomiko edo ondare bereizi mota oro. Haietan partaide diren pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan eta agindua garatzeko eta aplikatzeko arauetan ezarritako betekizun eta baldintzak.

3.– Aurreko puntuko b) eta c) apartatuetan jasotako laguntzak bateraezinak dira haien artean.

4.– Erakunde publikoak laguntza horietatik kanpo geratzen dira.

5.– Agindu honen bidez deitzen diren laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko

abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera emango dira (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 24koa, L 352/7). Horiek horrela, enpresatzat ulertu behar da jarduera ekonomiko bat gauzatzeko duen erakunde oro, haren izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein dela ere.

Hirugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Aurreko ebazpen-ataleko 1. apartatuan aipatutako laguntza-ildoei dagozkien eta dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak honako hauek dira:

1.– Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak sortzeko eta/edo garatzeko edozein proiektu, eta enpresa-izaera hartuko duten pertsona fisikoek garatutako jarduerak, nekazaritzako produktak eta elikagaiak ekoiztera, eraldatzera eta merkaturatzera bideratutako inbertsioak salbuetsita, landa-eremuko garapen ekonomikoarekin lotuta daudenak:

– Industria-jarduerarekin lotuta dauden proiektuak: tailerrak, fabrikak, instalazioak eta lokalak hainbat helburutarako; besteak beste, makineria konpontzeko; honelako gauzak ekoizteko edota sortzeko: nekazaritzakoak ez diren materialak eta ondasunak, plastikoak, elektrizitatea, energia, gasa, baporea eta beroa, ur-horniketako enpresak, estolderia eta hondakin-deuseztatzea, saneamendua eta beste; energia berriztagarriak eta horiekin zerikusia duten jarduerak.

– Honako hauekin lotutako proiektuak: turismoa, landetxeak eta nekazaritza-turismoa, turismo-zerbitzuak ematea, dendak, jatetxeak, tokiko eskaintza eta elikadura.

– Zerbitzuen ezarpenarekin eta eskaintzarekin lotutako proiektuak:

• Zerbitzu tekniko hauek: arkitektura eta ingeniariak, kontabilitatea, zerbitzuen kontu-ikuskarritza, garbiketa industrialak, albaitaritza-jarduerak.

• Zerbitzuak sektore ekonomiko guztiei; besteak beste, nekazaritzari, basogintzari eta landa-biztanleei: cateringa, bide-segurtasuneko zerbitzuak, eremu babestuetarako zerbitzuak, segurtasun-zerbitzuak, lorezaintza-zerbitzuak eta parkeen kudeaketa.

• Gizarte-zerbitzuak, hala nola umeak eta adinekoak zaintzeko, osasuna zaintzeko eta desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzeko; eskola-ustiategiak.

• Aisia-, jolas- eta kirol-jarduerekin lotutako zerbitzuak.

– Eskulangintza garatzeko eta eskulangileen jardueretarako proiektuak.

– IKTekin eta merkataritza elektronikoarekin lotutako proiektuak.

2.– Enpleguaren sorrera garbiko proiektuak.

– Besteren konturako langileak kontratatzea, aurretik inoiz enplegurik izan ez dutenak edo aurretik zeukatena galdu dutenak. Nolanahi ere, kasu bakoitzean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan xedatutako lanaldiaren % 50eko enplegua izan beharko da, gutxienez. Praktiketako kontratuak kanpo gelditzen dira.

– Jarduera independenteak sortzea; hau da, langile autonomoak jartzea edo gizarte-ekonomiako araubide juridikoaren pean dauden enpresak sartzeko sustatzen dutenak.

Laugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

1.– Dirulaguntzak jaso ditzaketen kostutzat hartuko dira agindu honetan araututako laguntzen helburu diren jardueretan egindako inbertsioak eta/edo gastuak, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera

eginikoak. Data hori baino lehenagoko gastuak egonez gero, dirulaguntza ukatuko da, proiektua aurretik hasita dagoela iritzita.

2.– Jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko eta mikroenpresak, enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko laguntzen kasuan, honako hauek hartzen dira diruz lagundu daitezkeen kostutzat:

a) Enpresa-planari lotutako ondasun higiezinak eskuratzea, lursailaren balioa salbuetsita. Tasatzaile independente eta akreditatu batek ezarriko du balioa.

b) Enpresa-planari lotutako ondasun higiezinak eraikitzea edo birgaitzea.

c) Makineria eta ekipamendu berriak erostea eta finantza-errentamendu bidez –erosteko betebeharra izanda– eskuratzea, ondasunaren merkatu-balioraino.

d) Jarduera berriari lotuta dauden bigarren eskuko ekipamenduak eta makineria erostea, baldin eta aurreko bost urteetan beste laguntzarik jaso ez badute; non eta erosketa berria ez den egiten hobekuntza teknologikoagatik edo errendimendu-arrazoiengatik.

e) Aurreko b) eta c) apartatuetan jasotako gastuei lotutako kostu orokorrak, hala nola profesionalen ordainsariak, diruz lagundu daitezkeen zenbatekoaren % 10eraino.

f) Ibilgailu bat eskuratzea, baldin eta jarduera ekonomikoa ibilgailu horretan bakarrik garatzen bada eta hura egokitu beharra izan bada jarduera gauzatzeko. Kontzeptu honengatik jasotako dirulaguntza ez da izango ibilgailuaren guztizko prezioaren % 20 baino gehiago, ez eta 20.000 eurotik gorakoa ere.

g) Ibilgailu bat eskuratzea, baldin eta jarduera ekonomikoa bakarra pertsonak edo salgaiak garraiatzea bada. Kontzeptu honengatik jasotako dirulaguntza ez da izango ibilgailuaren guztizko prezioaren % 20 baino gehiago, ez eta 20.000 eurotik gorakoa ere.

h) Ibilgailuak egokitzea dirulaguntzaren xede den jarduera garatzeko: 10.000 euroko dirulaguntza gehienez.

i) Programa eta aplikazio informatikoak eta webgune eta plataformak eskuratu edo garatzeko egindako inbertsioak.

j) Patenteak, lizentziak, autore-eskubideak eta erregistratutako markak eskuratu edo erregistratzeko egindako inbertsioak: 20.000 euro gehienez ere.

k) Tresnak eta altzariak.

l) Laguntza-eskaeraren xede den inbertsioari lotutako azterlanak: gehienez ere diruz lagundu daitezkeen zenbatekoaren % 10eraino.

m) Proiektuari lotutako beste azpiegitura batzuk.

n) Berezko lanak: diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren % 20eraino gehienez.

3.– Enplegua sortzen denean, diruz lagundu daitezkeen kostuak izango dira kontratatutako pertsonen soldata gordinari eta gizarte-segurantzari dagozkionak, bi ekitalditan.

4.– Hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Interes zordunak, finantza-gastuak eta banku-bermearen gastuak.

b) Berandutze-interesak, errekaruak, hertsapen-isunak, zehapen administratibo eta penalak, eta prozedura judizialen eta judizioz kanpoko gastuak.

- c) Zergak eta gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidetara eginiko ekarpenak, laguntzaren onuradunari dagokionez.
- d) Soilik egoitza gisa erabiltzeko etxebizitzak, eta soilik era pertsonalean eta etxean erabiltzeko ibilgailuak eta ondasunak.
- e) Ondasunak eta zerbitzuak erostearen ondoriozko faktura edo kontratuetan eginiko deskontuak, eta kontratu publiko edo pribatuetan kontratistak eginiko itzultzeak edo ordainketak, aldaketen edo bestelako kausen ondorio direnak.
- f) Finantza-errentamendua, baldin eta kontratuan zehazten ez bada eragiketa amaitzean ondasuna erosi beharra. Bestalde, ez dira diruz lagunduko errentatzailearen marjina, interesak birfinantzatzeko kostuak, gastu orokorrak eta aseguramendu-gastuak.
- g) Telefono-terminalak eskuratzea, aplikazio informatikoak badituzte ere.
- h) Ekipamenduak eta makineria birjartzeko edo soilik ordeztzeko inbertsioak.
- i) Instalazioen edo makinaren mantentze-lanen gastuak.

5.– Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 euro edo gehiagokoa bada obretan edo 15.000 eurokoa edo gehiagokoa gainerakoan, gutxienez hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak izan beharko ditu onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, non eta, haien ezaugarri bereziak direla eta, merkatuan ez den aski erakunde eskaintza horiek egin, eman edo entregatzeko, edo non eta gastua ez den dirulaguntzaren aurretik egin. Kasu horietan, kostuak neurritzea frogatu beharko da, dagokion justifikazio-memoriaren bidez.

Aurretik aipatutako mugak dirulaguntza jaso dezakeen kontzeptuaren mailan aplikatuzat jotzen dira, ebazpen-zati honen bigarren apartatuan zerrendatutakoen arabera. Muga horiek gaindituz gero, item bakoitzeko hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, zenbatekoak banaka txikiagoak badira ere.

Eskaintzek benetakoak eta ez fikziozkoak izan behar dute, hornitzaile erreal eta independenteenak, eta behar bezain zehatzak izan behar dute, eta elementu berak izan, alderagarriak izateko. Hiru eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da ekonomikoki abantailatsuen den proposamena hautatzen ez bada.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako jarduera azpikontratatzea.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, onuradunak azpikontratatu duela ulertuko da, dirulaguntzaren helburu den jardueraren exekuzio partziala edo osoa hirugarrenekin hitzartzen duenean. Hortik kanpo gelditzen dira diruz lagundutako jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko onuradunak egin behar dituen gastuak.

2.– Diruz lagundutako jardueraren % 100 azpikontratatu dezake onuradunak. Ezin izango da jarduerarik azpikontratatu, baldin eta, diruz lagundutako jardueraren kostua gehituta, inongo balio erantsirik ematen ez badio jardueraren edukiari. Hirugarrenekin azpikontrataturako jarduera dirulaguntzaren % 20tik gorakoa bada eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratua idatziz egitea.

b) Kontratua egiteko baimena aldeztu aurretik ematea erakunde emaileak.

Diruz lagundutako jarduerentzat jadanik beste administrazio publiko batek eman badu dirulaguntzarik, ulertu behar da administrazio honek egiaztatu duela eskakizun hauek betetzen direla.

3.– Ezin da kontratua zatikatu, zenbatekoa murrizteko eta aurreko apartatuko baldintzak bete beharrik ez izateko.

4.– Kontratatuek onuradunarekiko baino ez dituzte betebeharrak, zeinek osorik hartuko baitu bere gain diruz lagundutako jarduera egikaritzearen ardura.

5.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, onuradunak izango dira hirugarrenekin itundutako diruz lagundu daitekeen jarduera betetzeko mugak betetzearen erantzuleak, hain zuzen dirulaguntzaren araudian ezarritako mugak diruz lagundu daitezkeen gastuen motari eta zenbatekoari dagokionez, eta kontratatuek lege honen 46. artikuluan aurreikusitako lankidetzaren betebeharrak bete behar dituzte, muga horiek errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatzea ahalbidetzeko.

6.– Alabaina, onuradunak ezin izango du honako hauekin itundu diruz lagundutako jarduera partzialki edo osorik betearaztea:

a) Lege honen 13. artikuluan zehaztutako debekuetako bat duten pertsonak edo erakundeak.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo erakundeak.

c) Bitartekari edo aholkulariak, baldin eta operazioaren kostu osoaren ehuneko jakin gisa definitzen badira horiei ordaindu beharrekoak; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin loturaren bat daukaten pertsona fisikoak edo juridikoak, inguruabar hauek gertatzen direnean izan ezik:

1.– Dirulaguntza ematen duen organoaren berariazko baimena eskuratu izana, aldeztu aurretik.

2.– Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa ez izatea atxikitako entitateak egindako kostua baino handiagoa. Onuradunaren gastuak egiaztatzeke ezarritako baldintza beretan justifikatuta egiaztatuko da kostua.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu duten baina betekizunak ez betetzeagatik edo behar den balorazioa ez lortzeagatik laguntzarik gabe geratu diren pertsonak edo erakundeak.

Seigarrena.– Finantzaketa.

Agindu honetan jasotzen diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan xede horretarako ezartzen diren kredituetatik aterako dira, honela banatuta:

Laguntza-lerroa	2022 (€)	2023 (€)	Guztira
Jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko laguntzak	33.000	37.000	70.000
Enpresak sortzeko eta garatzeko laguntzak	1.617.000	1.813.000	3.430.000
Enplegua sortzeko laguntzak	30.000	30.000	60.000
Guztira	1.680.000	1.880.000	3.560.000

2.– Agindu honetako dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Aurrekontu Orokorretan.

Zazpigarrena.– Onuradun izateko betekizunak.

Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako eskakizunez gainera, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte pertsona fisikoek eta juridikoek eskabidea aurkezten duten unean eta aitorpenari dagokion aldi osoan:

- a) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.
- c) Deialdi honen xede diren landa-eremuetan gauzatzea diruz lagundu daitezkeen jarduketak.
- d) Dibertsifikazio-jarduerak direnean, onuradunaren lanbide nagusiak nekazaritza izan behar du, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4. artikuluko 14. apartatuko definizioaren arabera.
- e) Enplegua sortuz gero, onuradunak deialdi honetako landa-eremuan sortu behar du enplegua; jarduera independenteak sortuz gero, berriz, deialdi honetan barne hartutako landa-eremuan bizi behar du.
- f) Enpresa krisialdian ez egotea, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).
- g) Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahastuta ez egotea. Ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, administrazio-prozedura ez etetea, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere ebazpen judizial sendorik esleitzen ez bada, haren arabera, kasuan kasuko inskripzioa egin ahal izango baita dagokion erregistroan.
- h) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen epai irmorik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorriz.
- i) Konkurtso-deklaraziorik eskatu ez izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat deklarata ez egotea, konkurtsoan deklarata ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren eraginpean ez egotea, edo desgaitua ez egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.
- j) Administrazioarekin hitzartutako kontratu oren ebazpen irmoa eragin ez izana.
- k) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez egotea Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, horietan ezarritako baldintzetan.
- l) Erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

m) Jakinaraztea diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten ala ez administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, eta eskuratu duten ala ez.

n) Nekazaritzaren arloan jarduten duten profesional, enpresa edo bestelako enkartere edo erakundeak badira, emakumeen presentzia izatea zuzendaritza-organoetan (Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legearen arabera).

Zortzigarrena.– Eskabideak, agiriak eta aurkezteko epea.

1.– Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio laguntza-eskabideak. Eskabide horretan sartuko dira 3. apartatuan aurreikusitako eredu normalizatua, agindu honen bidez onartua, eta 7. apartatuan eskatzen den dokumentazioa.

2.– Pertsona juridikoek bide elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko dute eskabidea. Pertsona fisikoek aurrez aurre zein bide elektronikoa erabiliz aurkez ditzakete eskabideak. Eskabidea eta dokumentuak aurrez aurre aurkezteak edo bide elektronikoa erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez baliabide horiek erabili behar direnik prozeduraren ondorengo izapideetan, edozein unetan alda daitezke eta.

– Aurrez aurre: Eskabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin. Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten. Eskabidea Zuzenean zerbitzuan aurkezteko ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua eskatzea <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> (gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean>).

– Bide elektronikoa: 3. apartatuan adierazitakoaren arabera.

Eskabideak bide elektronikoz nahiz presentziaz aurkezteko, eskaerarako inprimaki-eredu normalizatuak erabiliko dira. Eredu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri. Eskabide-eredu espezifiko bat dagokio laguntza-lerro bakoitzari, eta interesdunek nahitaez erabili beharko dute eredu hori: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027816> (nekazaritza-jarduera dibertsifikatzeko proiektuetarako laguntzak); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027817> (enpleguaren sorrera garbirako laguntzak); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027818> (mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko laguntzak).

4.– Eskabidea egin osteko izapideak helbide elektroniko honen bidez egingo dira: euskaraz, <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>; gaztelaniaz: <http://www.euskadi.eus/micarpeta>.

5.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, artikulua hauetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariak: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikulua. Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkariak egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkariaren erregistro elektronikoan inskribatuta badago. Ordezkariak erregistro horretan inskribatuta ez badago, borondatezko ordezkariak emateko inprimaki normalizatua betetz (<https://www.euskadi.eus>).



eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/) edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutara egiaztatu beharko da ordezkaritza.

6.– Informazio hau bilduko du eredu normalizatuak:

a) Identifikazio-datuak.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, agindu honetan eskatutako baldintzak betetzen direla eta aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla adierazteko.

c) Proiektuaren informazioa, agindu honen II. eranskineko ereduaren arabera egina. Bertan jasoko dira proiektuaren deskribapena eta baloratu behar diren puntu guztiak, eta informazio hori jasotzen duten akordioak eta ziurtagiriak ere erantsi beharko dira. Jasotako alderdiak bakarrik hartuko dira kontuan.

7.– Era beran, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Hirugarrenen alta-agiria, azken bost urteetan Eusko Jaurlaritzari beste laguntzarik eskatu ez zaion kasuetan, edo emandakoa aldatu nahi denean. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu ahal izango da, dagokion zerbitzuaren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>. Gainerako izapideetarako bezala, izapidetze elektronikora behartuta dauden pertsonak eta erakundeek hirugarrenaren alta lortzeko erabili beharko dute zerbitzu hori. Pertsona juridikoa bada, ahalordetze-eskritura, hala badagokio, eta erakundearen eratzte-eskrituraren eta estatutuen kopia autentikoa, dagokion erregistroan zigilatuta.

b) Nekazaritzako dibertsifikazio-jarduerak badira, onuradunaren lanbide nagusia nekazaritza dela ziurtatzen duen dokumentua.

c) Hala badagokio, sozietateen gaineko zerga (200 eredua), mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomen-dioan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

d) Dibertsifikatzen duen titulartasun partekatuko emakume nekazaria bada, egoera hori egiaztatu beharko du.

e) Enpresa-izaera hartuko duten pertsona fisikoen kasuan, errolda-agiria.

f) Enplegu-sorreraren kasuetan, epe luzeko langabeek eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak inguruabar horiek egiaztatu beharko dituzte.

g) Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeak eta ondasun-erki-degoak direla eta, kide guztiek sinatutako dokumentua, non jasotzen baitira talde bakoitzeko kideek beren gain hartutako konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa, taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen ordezkeri edo ahalduaren izena eta funtsen hartzaile gisa izendatutako kidearen izena –hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean–.

h) Jarduera gauzatuko den ondasun higiezin erabiltzeko baimena ematen duen tituluaren kopia autentikoa, hura jabetza osoan edo partekatuan, errentamenduan, gozamenean edo prekarioan izan.

i) Eraikuntza- edo berriztatze-lanak egin behar badira, proiektu tekniko bat behar den ala ez justifikatuko duen udal-ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Ez bada behar proiektu teknikorik,

memoriarik edo balioztatutako zerrendarik –aurrekontua barne, egin beharreko gastua behar bezala xehakatu duena–, argi eta garbi adierazi beharko da obra egikaritzeko kostua eta hari dagokion BEZa. Proiektu teknikoa, oinarrizko proiektua edo gauzatze-proiektua behar bada.

j) Eraikitze- edo berriztatze-lanak egingo badira, hura egikaritzeko behar diren baimenak eta lizentziak aurkeztuko dira, edo, bestela, aldeko hirigintza-txostena.

k) Aurrekontuak edota proformako faktura, enplegu-sorkuntzako lerrorako izan ezik. Eskabi-dearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko hiru aurrekontuak ez badira aurkezten, dagokion inbertsioa edo gastua ez da aintzat hartuko diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko orduan.

l) Aurrekontuen eta/edo proformako fakturen xehetasuna jasotzen duen taula, non adieraziko baita zein den hautatutako eskaintza, enplegu-sorkuntzako lerrorako izan ezik, hemen eskuratu daitezkeen ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027816> (nekazaritza-jarduera dibertsifikatzeko proiektuetarako laguntzak); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027818> (mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko laguntzak).

m) Proiektua baloratzeko garrantzitsua izan daitekeen bestelako dokumentazio edo informazio oro.

8.– Nahiz eta pertsona fisiko eskatzaileak bide presentziala hautatu, dokumentazioa formatu digitalean aurkezten ahalegindu beharko da, batez ere proiektu teknikoak, memoriak eta bolumen handiko beste dokumentazio batzuk.

9.– Zuzendaritza kudeatzailearen zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta haren NAN/IFK ere. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka diezaioke egiaztatze horri, baina, orduan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Gainera, dirulaguntza-eskabidea aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan.

10.– Eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta berariaz adierazten bada ez dela aldaketarik egin, ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 3. paragrafoarekin. Hala ere, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu diren adierazi beharko dute. Eskabidea aurkezteak berarekin dakar organo kudeatzaileari baimena ematea dokumentazio hori eskuratzeko, hargatik eragotzi gabe baimena berariaz ukatu ahal izatea. Hori egitekotan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

11.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2022ko otsailaren 28an amaituko da. Eskabideak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio, horrela egin ezean, atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan emango den ebazpen baten bitartez.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eskabidea legez telematikoki aurkeztu behar badu interesdunak baina presentzialki egiten badu, aipatutako eskakizun

horri muzin eginda, aurkezteko modua zuzentzeko eskatuko zaio, eta legez ezarritako bide elektronikoak erabiliz egiteko. Eskakizun hori bete ezean, presentzialki aurkeztu duena ez da baliozkoa edo eraginkorra izango. Elektronikoki aurkezteko jarritako epea da eskabidea aurkezteko epea. Ondorio horietarako, baldin eta, zuzentzeko xedez, eskabide elektronikoa aurkezten bada, baina oinarri honetan ezarritako epetik kanpo, aurkeztu gabekotzat joko da eskabide hori.

12.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Ildo horretatik, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan eta prozedura guztian zehar, bat etorritz Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin.

13.– Aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidezteko beharrezko irizitako bestelako argibide edota agiri osagarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari.

14.– Onuradun bakoitzeko, proiektu bakar bat lagunduko da diruz; hala ere, hori ez da eragozpena izango eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkezteko. Proiektu horietatik, betiere, balorazio-irizpideen arabera puntu gehien lortzen duena lagunduko da diruz.

Bederatzigarrena.– Laguntzak kudeatzea.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lana Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari dagokio, bai eta diruz lagundutako jardueren kontrola eta jarraipena egitea ere. Horrela, Zuzendaritzak egoki irizten dizkion ikuskapenak egin ahal izango ditu, dirulaguntza lortu duten proiektuak modu egokian gauzatzen direla ziurtatzeko; horretarako, onuradunak eskatzen zaien dokumentazioa eta informazioa aurkeztera behartuta daude.

Hamargarrena.– Balorazio-batzordea eta -irizpideak.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, eta honako kide hauek izango ditu: Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako hiru teknikari, zuzendaritza horretako titularrak ebazpen bidez izendatuak.

2.– Ebazpenean zehaztuko da zein izango den batzordeko idazkaria eta zein batzordeko presidentea.

3.– Bere eginkizuna betetzeko, balorazio-batzordeak Haziko adituei eskatu ahal izango die bileretan presentzialki parte hartzeko, eta beste edozein adituri ere eskatu ahal izango diote aholkua.

4.– Ondoko tauletako irizpideen arabera baloratuko dira proiektuak, eta, horretarako, Proiektua Baloratzeko Memorian bildutako datuak bakarrik hartuko dira aintzat (II. eranskina), bai eta dokumentazio bidez frogatutakoak ere.

a) Dibertsifikazio-lerroko proiektuak:

IRIZPIDEAK ETA GEHIENENKO PUNTUAZIOA		DESKRIBAPENA	PUNTUAK	
Eskualdea (30 puntu)	Landatartasun-maila (10 puntu)	G4	10	
		G5	8	
		G6	6	
	Eskualdeko landa- garapenerako programara egokitzea (20 puntu)	Lehentasunezko sektoreetako proiektuak	15	
		Beste sektore batzuetako proiektuak	10	
		Industrialdeetan kokatutako proiektuak	5	
		Zeharkako ardatzak (puntu gehigarriak)		
		Zeharkako ardatzetan puntuak lortzeko, haietako bi jaso behar dira gutxienez	5	
	Nekazaria (15 puntu)	Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	Emakume nekazaria (izan ustia ketaren titular bakarra, izan titulartasun partekatua)	15
			<b>Pertsona fisikoak:</b>	
Prestakuntza eta esperientzia egiaztatu ditu, aurkeztutako proiektu-motari dagokionez			10	
Prestakuntza egiaztatu du, aurkeztutako proiektu motari dagokionez, baina ez dauka esperientziarik			8	
Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez			7	
Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina urtebetetik gorako esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez			5	
Ez du ez prestakuntzarik ez esperientziarik egiaztatu, aurkeztutako proiektu motari dagokionez			0	
<b>Pertsona juridikoak:</b>				
Bi urteko edo hortik gorako esperientzia egiaztatu du, aurkeztutako proiektu-motari dagokionez			10	
Urtebetetik gorako esperientzia egiaztatu du, aurkeztutako proiektu motari dagokionez			8	
Pertsona sustatzailea (30 puntu)	Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatu du, beste mota bateko proiektuei dagokienez	Bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatu du, beste mota bateko proiektuei dagokienez	5	
		Urtebetetik gorako esperientzia egiaztatu du, beste mota bateko proiektuei dagokienez	3	
		Ez du esperientziarik egiaztatu	0	
		<b>Pertsona fisikoak:</b>		
		Proiektua garatzen den udalerrian bertan erroldatuta dago	5	
		Proiektua garatzen den udalerria ez den landa-eremuko beste udalerrri batean erroldatuta dago	3	
		Gainerako kasuak	0	
		<b>Pertsona juridikoak:</b>		
		Proiektua garatzen den udalerrian dago enpresaren egoitza nagusia	5	
		Proiektua garatzen den udalerria ez den landa-eremuko beste udalerrri batean dago enpresaren egoitza nagusia	3	
Gainerako kasuak	0			
Lurraldearekiko lotura (5 puntu)	Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	<b>Enpresaren ekonomia- eta finantza-plana:</b>		
		Planaren balorazioa egiteko, aintzat hartuko dira baliabide propioak eta laguntzaren xede den proiektua egiteko eskuratutako beste laguntza edo kreditu batzuk		
		% 41etik gora:	8	
		% 31tik % 40ra:	6	
		% 21etik % 30era:	4	
		% 0tik % 20ra:	2	
Proiektua (30 puntu)	Enpresa-plana (27 puntu)	Ekonomia- eta finantza-plan osorik gabe	0	

IRIZPIDEAK ETA GEHIENENKO PUNTUAZIOA		DESKRIBAPENA	PUNTUAK
		<b>Gauzatze-gradua:</b>	
		Gauzatua	3
		Hasia	2
		Hasi gabea	1
		<b>Merkatuaren azterketa:</b>	
		Eskatzen zaizkion atal guztiak garatu ditu, eta egindako azterlanak aurkeztu	5
		Eskatu zaizkion apartatu guztiak garatu ditu, baina ez du azterlanik aurkeztu	3
		Ez ditu garatu eskatutako apartatu guztiak	1
		Ez dago merkatu-azterketarik	0
		<b>Marketin-plana:</b>	
		Eskatzen zaizkion atal guztiak garatu ditu, eta egindako azterlanak aurkeztu	5
		Eskatu zaizkion apartatu guztiak garatu ditu, baina ez du azterlanik aurkeztu	3
		Ez ditu garatu eskatutako apartatu guztiak	1
		Ez dago marketin-planik	0
		<b>Lankidetzak:</b>	
		Lankidetzak-hitzarmenak daude; inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enpresekin daude eginak, eta agiri bidez frogatuak	3
		Lankidetzak-hitzarmenak daude; inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enpresa eta hornitzaileekin daude eginak, baina ez daude agiri bidez frogatuta	2
		Ez dago lankidetzak-hitzarmenik inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enpresekin	0
		<b>Berrikuntza:</b>	
		Eskualde-mailan zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen dituzten proiektuak	3
		Udalerrian zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen dituzten proiektuak	2
		Zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen ez dituzten proiektuak	0
	Justifikazio-Memoria (3 puntu)	Deskribapen argia, laburra eta egoki garatua	3
		Deskribapen lauso samarra eta zehaztugabea	1
		Lanaldi osoko lanpostu bat baino gehiago sortzea	10
		Lanaldi osoko lanpostu bat sortzea	8
		Lanaldi erdiko lanpostu bat sortzea	4
Enplegua sortzea (10 puntu)	Enplegua sortzea (10 PUNTU)	Lanaldi osoko lanpostu bat baino gehiago, sortzeko daudenak	6
		Lanaldi osoko lanpostu bat, sortzeko dagoena	4
		Lanaldi erdiko lanpostu bat, sortzeko dagoena	2
		Lanposturik ez sortzea	0

b) Enpresa-lerroko proiektuak:

IRIZPIDEAK ETA GEHIENEKO PUNTUAZIOA		DESKRIBAPENA	PUNTUAK
Eskualdea (30 puntu)	Landartartasun-maila (10 puntu)	G4	10
		G5	8
		G6	6
	Eskualdeko landa- garapenerako programara egokitzea (20 puntu)	Lehentasunezko sektoreetako proiektuak	15
		Beste sektore batzuetako proiektuak	10
		Industrialdeetan kokatutako proiektuak	5
		Zeharkako ardatzak (puntu gehigarriak)	
		Zeharkako ardatzetan puntuak lortzeko, haietako bi jaso behar dira gutxienez	5
		<b>Pertsona fisikoak:</b> Prestakuntza eta esperientzia egiaztatu ditu, aurkeztutako proiektu-motari dagokionez	10
		Prestakuntza egiaztatu du, aurkeztutako proiektu motari dagokionez, baina ez dauka esperientziarik	8
Pertsona sustatzailea (20 puntu)	Prestakuntza-maila (10 puntu)	Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	7
		Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina urtebetetik gorako esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	5
		Ez du ez prestakuntzarik ez esperientziarik egiaztatu, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	0
		<b>Pertsona juridikoak:</b> Bi urteko edo hortik gorako esperientzia egiaztatu du, aurkeztutako proiektu-motari dagokionez	10
		Urtebetetik gorako esperientzia egiaztatu du, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	8
	Lurraldearekiko lotura (10 puntu)	Bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatu du, beste mota bateko proiektuei dagokienez	5
		Urtebetetik gorako esperientzia egiaztatu du, beste mota bateko proiektuei dagokienez	3
		Ez du esperientziarik egiaztatu	0
		<b>Pertsona fisikoak:</b> Proiektua garatzen den udalerrian bertan erroldatuta dago	10
		Proiektua garatzen den udalerria ez den landa-eremuko beste udalerrri batean erroldatuta dago	7
Proiektua (40 puntu)	Enpresa-plana (36 puntu)	<b>Pertsona juridikoak:</b> Proiektua garatzen den udalerrian dago enpresaren egoitza nagusia	10
		Proiektua garatzen den udalerria ez den landa-eremuko beste udalerrri batean dago enpresaren egoitza nagusia	7
		Gainerako kasuak	0
		<b>Enpresaren ekonomia- eta finantza-plana:</b> Planaren balorazioa egiteko, aintzat hartuko dira baliabide propioak eta laguntzaren xede den proiektua egiteko eskuratutako beste laguntza edo kreditu batzuk	
		% 41etik gora:	9
		% 31tik % 40ra:	8
		% 21etik % 30era:	6
		% 0tik % 20ra:	4
		Ekonomia- eta finantza-plan osorik gabe	0
		<b>Gauzatze-gradua:</b> Gauzatua	3

2021eko abenduaren 30a, osteguna

IRIZPIDEAK ETA GEHIENEO PUNTUAZIOA	DESKRIBAPENA	PUNTUAK
Enplegua sortzea (10 puntu)	Hasia	2
	Hasi gabea	1
	<b>Merkatuaren azterketa:</b>	
	Eskatzen zaizkion atal guztiak garatu ditu, eta egindako azterlanak aurkeztu	7
	Eskatu zaizkion apartatu guztiak garatu ditu, baina ez du azterlanik aurkeztu	4
	Ez ditu garatu eskatutako apartatu guztiak	2
	Ez dago merkatu-azterketarik	0
	<b>Marketin-plana:</b>	
	Eskatzen zaizkion atal guztiak garatu ditu, eta egindako azterlanak aurkeztu	7
	Eskatu zaizkion apartatu guztiak garatu ditu, baina ez du azterlanik aurkeztu	4
	Ez ditu garatu eskatutako apartatu guztiak	2
	Ez dago marketin-planik	0
	<b>Lankidetzak:</b>	
	Lankidetzak-hitzarmenak daude; inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enprekin daude eginak, eta agiri bidez frogatuak	5
	Lankidetzak-hitzarmenak daude; inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enpresa eta hornitzaileekin daude eginak, baina ez daude agiri bidez frogatuta	3
	Ez dago lankidetzak-hitzarmenik inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enprekin	0
	<b>Berrikuntza:</b>	
	Eskualde-mailan zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen dituzten proiektuak	5
	Udalerrian zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen dituzten proiektuak	3
	Zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen ez dituzten proiektuak	0
Justifikazio-memoria (4 puntu)	Deskribapen argia, laburra eta egoki garatua	4
	Deskribapen lauso samarra eta zehaztugabea	1
	Lanaldi osoko lanpostu bat baino gehiago sortzea	10
	Lanaldi osoko lanpostu bat sortzea	8
	Lanaldi erdiko lanpostu bat sortzea	4
	Lanaldi osoko lanpostu bat baino gehiago, sortzeko daudenak	6
	Lanaldi osoko lanpostu bat, sortzeko dagoena	4
	Lanaldi erdiko lanpostu bat, sortzeko dagoena	2
	Lanposturik ez sortzea	0

c) Enplegua sortzeko lerroko proiektuak:

IRIZPIDEAK ETA GEHIENEKO PUNTUAZIOA		DESKRIBAPENA	PUNTUAK
Eskualdea (30 puntu)	Landatartasun-maila (10 puntu)	G4	10
		G5	8
		G6	6
	Eskualdeko landa- garapenerako programara egokitzea (20 puntu)	Lehentasunezko sektoreetako proiektuak	15
		Beste sektore batzuetako proiektuak	10
		Industrialdeetan kokatutako proiektuak	5
		Zeharkako ardatzak (puntu gehigarriak)	
		Zeharkako ardatzetan puntuak lortzeko, haietako bi jaso behar dira gutxienez	5
		<b>Pertsona fisikoak:</b> Prestakuntza eta esperientzia egiaztatu ditu, aurkeztutako proiektu-motari dagokionez	10
		Prestakuntza egiaztatu du, aurkeztutako proiektu motari dagokionez, baina ez dauka esperientziarik	8
Pertsona sustatzailea (20 puntu)	Prestakuntza-maila (10 puntu)	Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	7
		Ez du prestakuntzarik egiaztatu, baina bi urtetik beherako esperientzia egiaztatua dauka, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	5
		Ez du ez prestakuntzarik ez esperientziarik egiaztatu, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	0
	Lurraldearekiko lotura (10 puntu)	<b>Pertsona juridikoak:</b> Bi urteko edo hortik gorako esperientzia egiaztatu du, aurkeztutako proiektu-motari dagokionez	10
		Urtebetetik gorako esperientzia egiaztatu du, aurkeztutako proiektu motari dagokionez	8
		Bi urteko edo gehiagoko esperientzia egiaztatu du, beste mota bateko proiektuei dagokienez	5
		Urtebetetik gorako esperientzia egiaztatu du, beste mota bateko proiektuei dagokienez	3
		Ez du esperientziarik egiaztatu	0
		<b>Pertsona fisikoak:</b> Proiektua garatzen den udalerrian bertan erroldatuta dago	10
		Proiektua garatzen den udalerria ez den landa-eremuko beste udalerrri batean erroldatuta dago	7
Enpresa-plana (32 puntu)	Gainerako kasuak	0	
	<b>Pertsona juridikoak:</b> Proiektua garatzen den udalerrian dago enpresaren egoitza nagusia	10	
	Proiektua garatzen den udalerria ez den landa-eremuko beste udalerrri batean dago enpresaren egoitza nagusia	7	
	Gainerako kasuak	0	
	<b>Enpresaren ekonomia- eta finantza-plana:</b> Planaren balorazioa egiteko, aintzat hartuko dira baliabide propioak eta laguntzaren xede den proiektua egiteko eskuratutako beste laguntza edo kreditu batzuk		
	% 41etik gora:	9	
	% 31tik % 40ra:	8	
% 21etik % 30era:	6		
% 0tik % 20ra:	4		
Proiektua (35 puntu)	Enpresa-plana (32 puntu)	Ekonomia- eta finantza-plan osorik gabe	0
		<b>Gauzatze-gradua:</b>	



IRIZPIDEAK ETA GEHIENENKO PUNTUAZIOA	DESKRIBAPENA	PUNTUAK
Enplegua sortzea (15 puntu)	Dagoeneko sortutako lanpostuak (bat gutxienez)	5
	Sortzeke dauden lanpostuak (guztiak)	2
	<b>Merkatuaren azterketa:</b>	
	Eskatzen zaizkion atal guztiak garatu ditu, eta egindako azterlanak aurkeztu	7
	Eskatu zaizkion apartatu guztiak garatu ditu, baina ez du azterlanik aurkeztu	4
	Ez ditu garatu eskatutako apartatu guztiak	2
	Ez dago merkatu-azterketarik	0
	<b>Marketin-plana:</b>	
	Eskatzen zaizkion atal guztiak garatu ditu, eta egindako azterlanak aurkeztu	7
	Eskatu zaizkion apartatu guztiak garatu ditu, baina ez du azterlanik aurkeztu	4
	Ez ditu garatu eskatutako apartatu guztiak	2
	Ez dago marketin-planik	0
	<b>Lankidetzak:</b>	
	Lankidetzak-hitzarmenak daude; inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enprekin daude eginak, eta agiri bidez frogatuak	2
	Lankidetzak-hitzarmenak daude; inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enpresa eta hornitzaileekin daude eginak, baina ez daude agiri bidez frogatuta	1
	Ez dago lankidetzak-hitzarmenik inguru horretan sinergiak sortzen dituzten enprekin	0
	<b>Berrikuntza:</b>	
	Eskualde-mailan zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen dituzten proiektuak	2
	Udalerrian zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen dituzten proiektuak	1
	Zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen ez dituzten proiektuak	0
Justifikazio-memoria (3 puntu)	Deskribapen argia, laburra eta egoki garatua	3
	Deskribapen lauso samarra eta zehaztugabea	1
	Lanaldi osoko lanpostu bat baino gehiago sortzea	15
	Lanaldi osoko lanpostu bat sortzea	12
Enplegua sortzea (15 puntu)	Lanaldi erdiko lanpostu bat sortzea	6
	Lanaldi osoko lanpostu bat baino gehiago, sortzeko daudenak	10
	Lanaldi osoko lanpostu bat, sortzeko dagoena	8
	Lanaldi erdiko lanpostu bat, sortzeko dagoena	4

5.– Eskatzaileak laguntza bat eskuratu badu Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2020ko abenduaren 15eko Aginduaren bidez egindako deialdian, 2 puntu kenduko zaizkio lortutako guztizko puntu-kopurutik. Hain zuzen ere, agindu horren bidez, G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuetan ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzen 2021eko ekitaldiko deialdia iragartzen da, entitate pribatuei zuzendua (Erein Pribatuak). Ofizioz egiaztatuko dute egoera hori balorazio-batzordeko kideek.

6.– Proiektuek, hautatuak izateko, gutxienez 50 puntu lortu behar dituzte.

Hamaikagarrena.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Bigarren ebazpen-ataleko 1. a) eta b) puntuetan, araututako laguntzak lortutako puntuazioaren arabera emango dira. Honako taula honen arabera zehaztuko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntza-ehunekoa:

Puntuak	%	Puntuak	%	Puntuak	%	Puntuak	%
	laguntza		laguntza		laguntza		laguntza
100	45	87	38	74	32	61	25
99	44	86	38	73	31	60	25
98	44	85	37	72	31	59	24
97	43	84	37	71	30	58	24
96	43	83	36	70	30	57	23
95	42	82	36	69	29	56	23
94	42	81	35	68	29	55	22
93	41	80	35	67	28	54	22
92	41	79	34	66	28	53	21
91	40	78	34	65	27	52	21
90	40	77	33	64	27	51	20
89	39	76	33	63	26	50	20
88	39	75	32	62	26		

2.– Enplegua sortzeko proiektuen kasuan (bigarren ebazpen-ataleko 1.c), laguntzaren zenbatekoa ez da kalkulatu diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko baten arabera; aitzitik, zenbateko finko bat izango da, eta behin baino ez da emango, sortutako lanpostu bakoitzeko, eta betiere kontratatutako lanaldiaren arabera. Nolanahi ere, kasu bakoitzean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan xedatutako lanaldiaren % 50eko enplegua izan beharko da, gutxienez. Honako taula honen arabera emango da:

Puntuazioa	Pertsona kontratatua			
	Gizonezkoa (€)	Emakumezkoa	Desgaitasuna duen* edo epe luzeko langabea den gizonezkoa	Desgaitasuna duen* edo epe luzeko langabea den emakumea (€)
95 eta 100 puntu artean	5.600,00	6.160,00	6.160,00	6.440,00
80 eta 94 puntu artean	5.300,00	5.830,00	5.830,00	6.095,00
65 eta 79 puntu artean	5.000,00	5.500,00	5.500,00	5.750,00
50 eta 64 puntu artean	4.800,00	5.280,00	5.280,00	5.520,00
< 50 puntu	0,00	0,00	0,00	0

\* % 33ko edo hortik gorako desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak.

3.– Azkenik egikaritutako zenbatekoa aintzat hartuta erabakiko da gainfinantzaketarik dagoen ala ez, eta dirulaguntza emateko aintzat hartutako aurrekontuaren zenbatekoa izango da haren muga.

Hamabigarrena.– Esleitzeko prozedura.

1.– Lehiaketa bidez esleituko dira agindu honetan jasotako laguntzak, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.1 artikuluan.

2.– Balorazio-batzordeak proiektuak aztertuko ditu, eta, aurreko ebazpen-ataleko irizpideei jarraituz, puntuak esleituko. Ondoren, zenbatekoak kalkulatuko ditu, lortutako puntuazioaren arabera.

3.– Gero, hiru zerrenda prestatuko ditu; laguntza-lerro bakoitzeko, bat. Hiru zerrendak goitik beherako hurrenkeran antolatuko dira, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, eta hurrenkera horri jarraituz emango dira laguntzak.

4.– Hiru laguntza-modalitateetako bati dagokion zenbatekoa agortu ezean, soberakina beste modalitateen zenbatekoei metatu ahalko zaie.

5.– Proiektu bik edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, «Landatartasun-maila» handiena duena lehenetsiko da, eta, berdinketak badirau, «Eskualdeko Landa Garapenerako Programara egokitzea» irizpidean puntuazio handiena lortu duena.

Hamahirugarrena.– Ebazpena.

1.– Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako titularrak ebatziko ditu laguntzak, balorazio-batzordeak aurkeztutako proposamena aintzat hartuta. Ebazpena, proposamen horrekin bat ez datorrenean, arrazoitu beharko da. Proposamena, izan ere, ez da loteslea.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Onartutako eskabideei dagokienez:

- Pertsona edo erakunde eskatzaileen izena.
- Diruz lagundutako proiektua.
- Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa.
- Diruz lagundutako zenbatekoa, urtekotan banatuta.
- Aurreikusitako jarduerak egiteko epea.
- Klausula bat, non onuradunari ezartzen baitzaio pertsona juridikoaren eraketa egiaztatuko duen dokumentazioa aurkezteko betebeharra, hala badagokio, bai eta proiektua gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimenak aurkezteko betebeharra ere.
- Zehapen-prozeduraren batean edo itzultze-prozeduraren batean egonez gero, hura amaitu egin beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena eta, hala badagokio, ordaintzekoa onartzeko. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko gaitasungabetzea badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, emandako laguntza baliogabetuko da, onuradun izateko debekua izateagatik.
- Nortasun juridikorik gabeko elkarteen kasuan, berariaz adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta dirulaguntzatik kide bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa. Kide guztiek izango dute onuradun-izaera.

b) Onartu ez diren eskabideei dagokienez:

- Pertsona edo erakunde eskatzaileen izena.
- Eskabidea ez onartzeko arrazoiak.

3.– Agindu hau indarrean jarri eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe hori bukatu eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala xedatzen baita urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

4.– Lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. paragrafoko b) apartatuan xedatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, interesdun bakoitzari helaraziko zaio ebazpen osoa. Nolanahi ere, lehenengo egin den jakinarazpenaren data joko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak landa-garapenaren arloan eskumena duen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera, edo hiru hilabeteko epean, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluekin bat etorritz.

Hamalagarrena.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- 1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntzaren onuradunak ez badio berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten laguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean, onartu egiten duela ulertuko da.
- 2.– Diruz lagundutako inbertsio eta gastuei bost urtez eutsi behar diete, gutxienez, gauzatzen direnetik aurrera; epe horretan ezingo dira ez besterendu ez amortizatu, ez eta dirulaguntzen xedea ez den beste ezertarako erabili ere. Ondorio horietarako, eta ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaitzen diren kasuan, onuradunak dirulaguntza ematen dion ziurtagiria aurkeztu beharko du dagokion jabetza-erregistroan. Erregistro horretan, agiri hori ikusita, jabaria erabiltzeko mugaren erregistro-idazpena egingo da, hipoteka-legeriarekin bat etorritz. Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, enplegu-sorkuntza hartu bada aintzat proiektuen balorazio-irizpide gisa, enplegu horrek inbertsioak eraginkor dauden unean sortua beharko du, eta onuradunari laguntzaren azken ordainketa egin eta hurrengo hiru urteetan gutxienez eutsi beharko zaio.
- 3.– Diruz laguntzen den gastua egin behar dute, laguntza emateko ebazpenak eta, hala bada, dagokio, laguntza luzatzeko ebazpenak xedatzen duen epean.
- 4.– Enplegua sortzeko proiektuen kasuan, deialdiaren urtean sortu beharko dira, eta gutxienez hiru urtez eutsi beharko diete lanpostuei, benetan sortzen diren datatik (hau da, Gizarte Segurantzaren alta ematen denetik) hasita.
- 5.– Landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari jakinarazi behar diote inbertsio osoa edo zati bat egin dutela, eta haren esku utzi behar dituzte inbertsioak gauzatu dituztela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak.

6.– Landa-garapenaren arloan eskumena duen sailaren babesaren dutela aipatu beharko dute, proiektua zabaltzeko egiten diren agirietan eta publizitatean. Aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburuan xedatutakoarekin bat etorritz sartuko da ([https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/identidad\\_corporativa/eu\\_5611/adjuntos/MANUAL\\_ID\\_4PUBLICIDAD.PDF](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/identidad_corporativa/eu_5611/adjuntos/MANUAL_ID_4PUBLICIDAD.PDF)).

7.– Jasotako laguntzak zertarako erabili diren eta laguntzen helburuak bete diren fiskalizatzeko lanean dihardutela eskatzen duten informazio guztia eman beharko diete landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

8.– Agindu honetako ebazpen-ataleko zortzigarren zenbakiak xedatzen duena alde batera utzi gabe, landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari idatziz jakinarazi behar diote xede bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatu eta, hala badagokio, eskuratu dituztela beste administrazioen batetik edo erakunde publiko edo pribaturen batetik, hala gertatzen denean. Era berean, abian den ekitaldian eta aurreko bietan eskatutako edo eskuratutako minimis laguntza guztiak jakinarazi beharko dituzte, haien xedea edozein dela ere. Aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin beharko da jakinarazpen hori, eta, edonola ere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

9.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat –objektiboa zein subjektiboa– aldatuz gero, horren berri eman beharko diote, idatziz, landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari. Jakinarazpen hori aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean, eta, edozein kasutan, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen egin beharko da.

10.– Xedapen hauetan ezarritako betebeharrak betetzea: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikulua, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua.

11.– Nortasun juridikorik ez duten elkarteak ezin dira desegin Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 32.m) artikularekin lotuta 44. artikuluan finkatzen den preskripzio-epea igarotzen den arte.

12.– Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

13.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.

Hamabosgarrena.– Gauzatzeko epeak.

1.– Proiektuak 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean gauzatu ahal izango dira, laguntza emateko ebazpenean proiektu bakoitzerako ezarritako epeen arabera. 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako proiektuak ez dira diruz lagunduko.

2.– Diruz lagundutako jarduketa egin eta amaitzeko epeari dagokionez, erakunde onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak gertatzen badira (behar bezala frogatu beharko dira), eta idatzizko eskabidea, gehienez ere, inbertsioa eta/edo gastua amaitu behar den eguna baino 30 egun lehenago

aurkezten bada, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak, horretarako emandako ebazpen baten bitartez, epe hori luzatzea baimendu dezake, baina luzapen hori ez da izango hasieran erabakitakoa baino luzeagoa.

Hamaseigarrena.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Nekazaritza-sektoreko jarduera ekonomikoa beste jarduera batzuetara dibertsifikatzeko eta mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak sortzeko eta garatzeko laguntzen kasuan, eta nekazaritzako eta elikagaigintzako sektoreari lotuta ez dauden pertsona fisikoek jarduera independenteak sortzeko laguntzen kasuan, honako hauek aurkeztuta egiaztatuko da inbertsioa edota gastua behar bezala gauzatu dela:

- a) Egiten diren jarduketak justifikatzeko memoria bat, laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela azaltzen duena.
- b) Fakturak edo froga-balio bereko agiriak, eta ordainketen frogagiriak, laguntzaren onuradun den pertsonaren izenean eginak. Finantza-errentamenduaren kasuan, eragiketa amaitzean ondasuna eskuratzeko betebeharra ezartzen duen kontratua.
- c) Aurkeztutako fakturen zerrenda.
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko fakturak eta frogagiriak ez direla beste laguntza-programa batzuk justifikatzeko aurkeztu. Aitzitik, baldin eta beste laguntza-programa batzuk justifikatzeko aurkeztu badira dokumentu horiek, zehaztu beharko da programak zein diren eta, faktura edo frogagiri bakoitzari dagokionez, zein den jasotako dirulaguntzaren ehuneko.
- e) Laguntza jasotzeko pertsonifikaturiko erakunde bat eratu beharra baldin badago, eraketa-akta, estatutuak eta dagokion erregistroan izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria.
- f) Laguntza jasotzeko manuzko baimenak eta lizentziak aurkeztu behar badira, eta laguntza-eskabidea egitean eman gabe badaude, haiexek aurkeztu beharko dira.
- g) Eskudiruzko ordainketen bidezko justifikazioen kasuan, urriaren 20ko 7/2012 Legearen 7. artikuluko 1. apartatuan jasotzen diren mugak gorde beharko dira; lege horren bidez, bate-tik, zerga- eta aurrekontu-araudia aldatzen da, eta, bestetik, iruzurraren kontra egiteko eta hura prebenitzeko jarduketak areagotzeko finantzaketa-araudia egokitzen da.
- h) Obrak egitearen ondoriozko gastuen kasuetan, eskumena duen maila teknikoko pertsona batek sinatutako obren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, obrak gauzatu direla frogatzeko.
- i) Era berean, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren guztizkoaren % 20ko mugarekin, justifikatutzat jo ahal izango dira bai onuradunak berak egindako lanak eta bai onuradunaren ingurukoak izanik enpresariak ez direnek edo hala ez dihardutenek egindako lanak ere. Kasu horretan, hornitzailearen faktura ordainduen bitartez justifikatu beharko dira materialak, eta eskulana, aldiz, teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiriaren bitartez; ziurtagiri horretan, direlako lanetan inbertitutako ordu guztien kostua zehaztu beharko da. Ezarritako baremo ofizialekin bat egin beharko da orduen balioespena; horrek ez du sekula ere gaindituko merkaturian lan horiek duten balioespena, ezta urbanizazio- eta eraikuntza-prezioen oinarria ere, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean arlo horretan eskumena duen sailak argitaratutakoa. Edonola ere, onuradunari dokumentu gehigarria eskatu ahalko zaio.

j) Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako langile teknikoek memoria gehigarri bat aurkezteko eskatu ahal izango dute. Memoria horrek taula xehatu bat jasoko du, fakturei eta egin diren ordainketei buruzko datuekin, adibidez: fakturazioaren eta ordainketaren erreferentziak eta datak, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatu zaizkion zergak.

k) Enplegua sortzeko konpromisoa badago, dagokion egiaztapena.

2.– Enplegua sortzeko laguntzak. Kasu horietan, frogagiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Besteren konturako kontratazioaren kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: lan-kontratuen kopia autentikoa; Gizarte Segurantzaren alta emanda daudela egiaztatzen agiri; kontratazioaren hilabeteko TC2a; altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena, eta alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, kontratazioa egin aurreko 12 hilabetei dagokiena.

b) Jarduera independenteen sorreraren kasuan, altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da, bai eta Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta emanda egotearen ziurtagiria ere.

3.– Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, betebeharra dutenen baimenik izan gabe, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela, hala xedatuta baitago azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan. Edonola ere, eskatzaileak berariaz uko egin ahal izango dio baimen horri bere eskabidean; kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

4.– Kudeaketa egokia eta artikulua honen 1. apartatuan aipatzen diren laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio-agiriak aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsioaren edo gastuaren azken egunetik edo azken luzapenearen azken egunetik aurrera.

5.– Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak agiri gehiago eska ditzake, behar bezalako arrazoiak emanda, egoki irizten badio.

Hamazazpigarrena.– Ordainketa.

1.– Ordainketak laguntza aurreko ebazpen-atalean ezarritako baldintzetan arrazoitu ondoren eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako teknikariek ziurtapena egin ondoren egingo dira. Eraikitzeen, eskuratzeen edo birgaitzeen kasuan, erakunde onuradunak, azken ordainketa egin aurretik, dagokion dirulaguntza emateko ziurtagiria jabetza-erregistroan inskribatu dela egiaztatzen agiriak aurkeztu beharko ditu.

2.– Inbertsioen kasuan, ekitaldi bakoitzeko bi ordainketa partzial egin ahal izango dira, interesdunak hala eskatuta, aurreko ebazpen-atalean aipatzen diren ziurtagiriak, alegia, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzen, aurkeztu ondoren.

Laguntza emateko unean, pertsona onuradunaren izaera bereganatzen duen erakundeari dagokion erregistroan eraketa eta inskripzioa oraindik egin gabe dauden kasuan, ez dira emango ordainketa partzialak, harik eta hura eratu arte.

3.– Enplegua sortzeko laguntzen kasuan, % 50en lehen ordainketa egingo da, besteren konturako kontratazioa edo ebazpen-ataleko hamaseigarren ataleko 2. zenbakian aipatutako jarduera

independenteen sorrera egiaztatzen duen dokumentazioaren ondoren. Bigarren ordainketa, gainerako % 50a, lehenengoa egin eta urtebetera, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek sortutako lanpostuei eusten zaiela behar bezala egiaztatu ondoren, eta, jarduera independenteen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremu batean bizitzen jarraitzen dutela.

4.– Onuradunei dirulaguntza emateko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako edozein itzultze- edo zehatze-prozedura amaituta egotea, oraindik izapidetzen ari bada.

5.– Dirulaguntzaren xede den proiektua ezarritako gehieneko epeetan egiten ez bada edo egiaztatzeko agiriak aurkezten ez badira, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

6.– Nolanahi ere, agindu honetan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoaren banaketaren arabera, 2023. urteko aurrekontu-zuzkiduraren kontura ebatzitako zenbatekoak 2022. ekitaldia amaitu ondoren ordainduko dira.

Hemezortzigarrena.– Dirulaguntzak emateko baldintzak aldatzea.

1.– Aldi berean beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortzen badira, hori justifikatu eta jakinarazi beharko zaio, idatziz, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari, egoera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta, edonola ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen. Ondorio horietarako, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak laguntza aldatzeko dagokion ebazpena emango du, eta, haren bidez, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berrira egokituko dira. Gainera, hala badagokio, hasiera emango zaio itzulketa-prozesuari, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoari jarraituz (698/1991 Dekretuaren bidez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da, eta, bestetik, horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira).

2.– Honako hauek, alde zurretik, idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaizkio Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari, baina laguntza emateko ebazpena ez da aldatuko: dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea; onetsitako proiektua aurrez ikusitako epeetan ez egitea; proiektua aldatu edo birprogramatzea eskaerarekin batera aurkeztu zenarekin alderatuta, betiere aurkeztutako proiektua nabarmen aldatzen ez bada, agindu honetan ezarritako gutxieneko eskakizunak zaintzen badira eta laguntza ematea eragin zuen xedeari eusten bazaio.

Honako hauek, alde zurretik, idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaizkio Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari, eta gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea: dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea; onetsitako proiektua aurrez ikusitako epeetan ez egitea; proiektua aldatu edo birprogramatzea eskaerarekin batera aurkeztu zenarekin alderatuta, betiere aurkeztutako proiektua nabarmen aldatzen bada, baina laguntza ematea eragin zuen xedea betetzen bada. Ondorio horietarako, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako titularrak dagokion aldaketa-ebazpena emango du.



3.– Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako titularraren likidazio-ebazpenaren bidez, eta, ondoren, dirulaguntzaren portzentajea oinarri berriari aplikatuko zaio.

Hemeretzigarrena. Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Eskatzaileak eskabide horretan atzera egiteko aukera izango du. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Uko-egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak ebazpen baten bidez eta bete-betean onartuko du atzera egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du pertsona horri dagokionez.

2.– Laguntzaren onuradunak uko egin ahal izango dio eman zaion laguntzari. Laguntza onartu ondoren eta gastua egiten bukatu aurretik egin ahal izango dio uko laguntzari, baldin eta Administrazioak ez badu inolako ordainketarik egin, betiere. Uko-egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak ebazpen baten bidez eta berariaz onartuko du uko-egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du pertsona horri dagokionez.

Hogeigarrena.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, ez badu proiektua partzialki betetzen (eta, modu horretan, laguntzaren xedea osorik hutsaltzen badu), edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikularekin eta abenduaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikularekin bat etorritik, laguntza eman zuen organo eskudunak, ez-betetzearen espedientea izapidetu ondoren (interesdunari entzunda), ebazpen bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio (partzialki edo erabat) onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze-mailarekiko modu proportzionalan) eta berandutze-interesak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin (Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzultzei buruzkoa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikularekin bat etorritik, hartara eragotzi gabe beste neurri batzuk hartzea. Aipatutako diru kopuruak diru-sarrerara publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako. Ez-betetzea inbertsioei eusteko epeari badagokio, emandako dirulaguntzaren itzultzea pro rata temporis egingo da.

2.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzultze-prozedura, organo eskudunari jakinarazi behar zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

Hogeita batgarrena.– Bateragarritasunak.

1.– Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduak (EE) (minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulauk aplikatzei buruzkoa) ezartzen du enpresa jakin bati estatu kide batek emango dizkion laguntzen kopuru osoa ez dela 200.000 euro baino gehiagokoa izango, hiru zergaldiko edozein alditan.

2.– Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio publiko, sail, erakunde publiko zein pribatuk emandako laguntzekin, betiere laguntza guztien zenbatekoa ez bada kasu bakoitzean aplikatzen diren erregelamenduetan edo jarraibideetan ezarritako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa. Kasu horretan, hemezortzigarren ebazpen-atalaren 1. apartatuan xedatutakoa errespetatu beharko da.

3.– Laguntza hauek bateraezinak izango dira Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak 2022ko ekitaldian bere jardun-eremuan egindako beste edozein deialditan eskuratutakoekin. Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek ofizioz egiaztatuko dute bateraezintasun hori.

Hogeita bigarrena.– Datuen babesa.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak konpromisoa hartzen du datuak dagokien babes-mailarekin tratatzeko, betiere Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.**

Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.**

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 15a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2021eko abenduaren 30a, osteguna

## I. ERANSKINA

Udalerría	Entitatea	Landatartasun-maila
Abadiño	Abadiño-Zelaieta	G6
Abadiño	Gaztelua	G5
Abadiño	Gerediaga	G5
Abadiño	Mendiola	G4
Abadiño	Muntsaratz	G6
Abadiño	Traña-Matiena	URB
Abadiño	Urkiola	G4
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Abanto	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Cotorrio	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	El Campillo	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Gallarta	URB
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	La Balastera	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	La Florida	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Las Calizas	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Las Carreras	G6
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Las Cortes	G4
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Los Castaños	G4
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Murrieta	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Picón	G4
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Putxeta	G6
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	San Pedro	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Sanfuentes	G6
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Santa Juliana	G5
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Triano	G4
Aduna	Aduna	G6
Aizarnazabal	Aizarnazabal	G6
Aizarnazabal	Etxabe	G4
Aizarnazabal	Etxezarreta	G5
Aizarnazabal	Mugitzagaina	G4
Aizarnazabal	Saiatz	G4
Aizarnazabal	Zubialdea	G5
Ajangiz	Kanpantxu	G6
Ajangiz	Mendieta	G6
Alegría-Dulantzi	Alegría-Dulantzi	URB
Alegría-Dulantzi	Egileta	G5
Altzo	Altzo	G5
Amorebieta-Etxano	Aldana	G5
Amorebieta-Etxano	Amorebieta	URB

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Amorebieta-Etxano	Astepe	G6
Amorebieta-Etxano	Autzagana	G5
Amorebieta-Etxano	Bernagoitia	G4
Amorebieta-Etxano	Boroa	G6
Amorebieta-Etxano	Dudea	G5
Amorebieta-Etxano	Etxano	G6
Amorebieta-Etxano	Euba	G5
Amorebieta-Etxano	Oromiño	G5
Amurrio	Aloria	G4
Amurrio	Amurrio	URB
Amurrio	Artomaña	G4
Amurrio	Baranbio	G4
Amurrio	Berganza-Onsoño- Aldama-Pardio-Mariaka	G4
Amurrio	Delika	G4
Amurrio	Larrinbe	G5
Amurrio	Lekamaña	G4
Amurrio	Lezama	G4
Amurrio	Saratxo	G4
Amurrio	Tertanga	G4
Andoain	Andoain	URB
Andoain	Buruntza	G4
Andoain	Goiburu	G5
Andoain	Leizotz	G4
Andoain	Sorabilla	G6
Anoeta	Anoeta	G6
Antzuola	Antzuola	URB
Antzuola	Antzuola resto	G4
Areatza	Areatza	G6
Areatza	Launtzain	G4
Areatza	Uparan	G4
Aretxabaleta	Aozaratza	G5
Aretxabaleta	Apotzaga-Etxebarri	G4
Aretxabaleta	Areantza	G4
Aretxabaleta	Aretxabaleta	URB
Aretxabaleta	Arkarazo	G4
Aretxabaleta	Galartza	G4
Aretxabaleta	Goroeta	G4
Aretxabaleta	Izurieta	G4
Aretxabaleta	Larrino	G4

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Arexabaleta	Oro	G4
Arrasate	Arrasate	URB
Arrasate	Bedoña	G5
Arrasate	Garagartza	G5
Arrasate	Gesalibar	G5
Arrasate	Meatzerreka	G4
Arrasate	Udala	G4
Arrigorriaga	Abusu	URB
Arrigorriaga	Agirre	G4
Arrigorriaga	Arrigorriaga	URB
Arrigorriaga	Martiaritu	G5
Asteasu	Asteasu	G6
Asteasu	Beballara	G4
Asteasu	Elizmendi	G5
Asteasu	Errekaballara	G5
Asteasu	Goiballara	G4
Asteasu	Upazan	G4
Astigarraga	Astigarraga	URB
Astigarraga	Santiagomendi	G5
Azkoitia	Arrietamendi	G4
Azkoitia	Azkoitia	URB
Azkoitia	Izarraitz	G4
Azkoitia	Ormaolamendi	G4
Azpeitia	Aratz Erreka	G4
Azpeitia	Azpeitia	URB
Azpeitia	Eizagirre	G4
Azpeitia	Elosiaga	G4
Azpeitia	Izarraitz	G5
Azpeitia	Loiola	G4
Azpeitia	Nuarbe	G6
Azpeitia	Odria	G5
Azpeitia	Oñatz	G5
Azpeitia	Urrestilla	G6
Bakio	Artzalde	G4
Bakio	Elexalde	G6
Bakio	Gibelorrazagako San Pelaio	G6
Bakio	Goitisolalde	G4
Bakio	Urkitaur	G5
Bakio	Zubiaur	G5

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Balmaseda	Balmaseda	URB
Balmaseda	Pandozales	G4
Balmaseda	Peñueco	G4
Barakaldo	Errekato	G5
Barakaldo	San Vicente de Barakaldo	URB
Barrika	Elexalde	G6
Barrika	Goierri	G5
Beasain	Altamira	G4
Beasain	Antzizar	G5
Beasain	Aratz-Matxinbenta	G4
Beasain	Arriaran	G4
Beasain	Astigarreta	G4
Beasain	Beasain	URB
Beasain	Beasainmendi	G4
Beasain	Garin	G4
Beasain	Gudugarreta	G5
Beasain	Loinatz	G5
Beasain	Salbatore	G6
Beasain	Ugartemendi	G4
Berango	Baserri-Santa Ana	URB
Berango	Berango	URB
Berango	Landa eremua «baserri Santa Ana»	G6
Bergara	Angiozar	G4
Bergara	Basalgo	G4
Bergara	Bergara	URB
Bergara	Elorregi	G4
Bergara	Elosua	G4
Bergara	Osintxu	G5
Bergara	Ubera	G4
Bermeo	Agirre	G4
Bermeo	Almika	G4
Bermeo	Arane-Gibelortzaga	G4
Bermeo	Arranotegi	G4
Bermeo	Artika	G4
Bermeo	Baratz Eder	G6
Bermeo	Bermeo	URB
Bermeo	Demiku	G4
Bermeo	Mañu	G4
Bermeo	San Andres	G4

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Bermeo	San Migel	G5
Berriz	Andikoa	G4
Berriz	Berriz-Olakueta	URB
Berriz	Eitua	G4
Berriz	Murgoitio	G4
Berriz	Okango	G4
Berriz	Sallobente	G5
Berriz	Sarria	G4
Deba	Deba	URB
Deba	Itziar	G5
Deba	Lastur	G4
Derio	Aldekona (San Isidro)	G6
Derio	Aranoltza (San Antolin)	G6
Derio	Arteaga Derio	URB
Derio	Elexalde Derio	G6
Derio	San Esteban Derio	G6
Derio	Ugaldeguren (Santimami)	G6
Donostia	Añorga	G6
Donostia	Donostia	URB
Donostia	Igeldo	G6
Donostia	Landarbaso	G5
Donostia	Zubieta	G6
Eibar	Aginaga	G4
Eibar	Arrate	G4
Eibar	Eibar	URB
Eibar	Gorosta	G4
Eibar	Mandiola	G4
Eibar	Otaola	G4
Elciego	Elciego	G5
Elgeta	Elgeta	G6
Elgoibar	Aiastia (San Migel)	G4
Elgoibar	Altzola	G5
Elgoibar	Arriaga	G4
Elgoibar	Azkue (San Roke)	URB
Elgoibar	Elgoibar	URB
Elgoibar	Idotorbe (San Pedro)	G5
Elgoibar	Sallobente-Ermuaran	G4
Elgoibar	Urruzuno	G4
Elorrio	Berrio-Aldape	G4

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Elorrio	Berriozabaleta-Aramiño	G5
Elorrio	Elorrio	URB
Elorrio	Gazeta	G5
Elorrio	Gaztañeta	G5
Elorrio	Igurua	G4
Elorrio	Leiz-Miñota	G4
Elorrio	Lekeriketa	G5
Elorrio	Mendraka	G5
Elorrio	San Agustin	G5
Erandio	Altzaga	URB
Erandio	Arriaga	G5
Erandio	Astrabudua	URB
Erandio	Asua-Lauroeta	G5
Erandio	Erandiogoikoa	G6
Erandio	Goierri	G5
Erandio	Lutxana-Enekuri	G5
Erreterria	Erreterria	URB
Erreterria	Zamalbide	G5
Eskoriatza	Apotzaga	G4
Eskoriatza	Bolibar	G4
Eskoriatza	Eskoriatza	URB
Eskoriatza	Gellao	G4
Eskoriatza	Marin	G4
Eskoriatza	Mazmela	G5
Eskoriatza	Mendiola	G4
Eskoriatza	Zarimutz	G4
Etxebarri	Doneztebe	URB
Etxebarri	Kukullaga	URB
Etxebarri	Legizamon	G5
Galdakao	Agirre-Aperribai	URB
Galdakao	Bekea	G5
Galdakao	Elexalde	G6
Galdakao	Gumuzio	G5
Galdakao	Kurtzea	URB
Galdakao	Usansolo	URB
Gatika	Butroe	G4
Gatika	Garai	G5
Gatika	Gorordo	G5
Gatika	Igartua	G5



2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerrria	Entitatea	Landatartasun-maila
Gatika	Libaroa	G5
Gatika	Sertutxa	G6
Gatika	Ugarte	G5
Gatika	Urresti	G4
Gatika	Zurbao	G5
Gernika-Lumo	Arana	G6
Gernika-Lumo	Errenteria	URB
Gernika-Lumo	Gernika-Lumo	URB
Gernika-Lumo	Lumo	G4
Gernika-Lumo	Zallo	G5
Getaria	Askizu	G4
Getaria	Eitzaga	G4
Getaria	Getaria	URB
Getaria	Meaga	G4
Getaria	San Prudentzio	G5
Gorliz	Agirre-Areantza-Guzurmendi	G5
Gorliz	Elexalde	URB
Gorliz	Gandia	G5
Gorliz	Urezarantza	G5
Güeñes	Güeñes	G6
Güeñes	La Quadra	G5
Güeñes	Sodupe	URB
Güeñes	Zaramillo	G5
Hernani	Akerregi	G6
Hernani	Epela	G5
Hernani	Ereñotzu	G5
Hernani	Eziago	G6
Hernani	Hernani	URB
Hernani	Jauregi	G6
Hernani	Martindegi	G5
Hernani	Osinaga	G5
Hernani	Pagoaga	G4
Hernani	Santa Barbara	G5
Hernani	Zikuñaga	G6
Hondarribia	Akartegi	URB
Hondarribia	Alde Zaharra	G6
Hondarribia	Amute-Kosta	G6
Hondarribia	Arkolla	G5
Hondarribia	Gornutz (Montaña)	G4

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Hondarribia	Jaitzubia	G5
Hondarribia	Mendelu	G6
Hondarribia	Portua	URB
Hondarribia	Puntalea	G6
Hondarribia	Zimizarga	G6
Ibarra	Ibarra	URB
Ibarra	Izaskun	G4
Idiazabal	Idiazabal	G6
Idiazabal	Urtsuaran	G4
Igorre	Basauntz	G4
Igorre	Elexalde	URB
Igorre	Olabarri	G6
Igorre	Sabino Arana	G6
Igorre	San Juan	G5
Igorre	Santa Lutzia	G4
Igorre	Urkizu	G5
Ikaztegieta	Ikaztegieta	G6
Irun	Behobia	G5
Irun	Bidasoa	G4
Irun	Irun	URB
Irun	Katea-Ventas	G5
Irun	Lapice	G5
Irun	Meakar	G5
Irun	Olaberria	G5
Iruña Oka	Mandaita	G5
Iruña Oka	Langraiz Oka	URB
Iruña Oka	Olabarri	G6
Iruña Oka	Trespuentes	G6
Iruña Oka	Billoda	G6
Irura	Irura	G6
Itsasondo	Itsasondo	G6
Iurreta	Aita San Migel	G6
Iurreta	Amatza	G5
Iurreta	Arandia	G6
Iurreta	Arriandi	G5
Iurreta	Artatza	G5
Iurreta	Bakixa	G5
Iurreta	Fauste	G5
Iurreta	Garaizar	G5

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerría	Entitatea	Landatartasun-maila
Iurreta	Gaztañatza	G4
Iurreta	Goiuria	G5
Iurreta	Iturburu	G6
Iurreta	Iurreta	URB
Iurreta	Mallabiena	G6
Iurreta	Mañariku	G5
Iurreta	Oromiño	G5
Iurreta	Orozketá	G5
Iurreta	San Andres	G4
Iurreta	San Marko	G4
Iurreta	Santa Apolonia	G5
Iurreta	Santa Maña	G4
Izurtza	Bitañó	G4
Izurtza	Echano	G4
Izurtza	Izurtza	G5
Izurtza	Ortuzar	G4
Laguardia	Campillar (El)	G4
Laguardia	Laguardia	G6
Laguardia	Laserna	G4
Laguardia	Páganos	G4
Larrabetzu	Goikoelexalde/Elexalde	G4
Larrabetzu	Uria	G6
Lasarte-Oria	Atsobakar	G6
Lasarte-Oria	Larrekoetxe	G6
Lasarte-Oria	Lasarte	URB
Lasarte-Oria	Oria	G5
Lasarte-Oria	Oztaran	G6
Laudio	Beldui-Zumelta-Olako	G5
Laudio	Dubiriz	G4
Laudio	Gardea	G5
Laudio	Goienuri	G5
Laudio	Isusi	G4
Laudio	Izardui-Altui-Odiaga	G4
Laudio	Larraño Luxa	G4
Laudio	Larrazabal	G5
Laudio	Laudio	URB
Laudio	Lusurbeilanda-Oleta	G4
Laudio	Markuartu	G4
Laudio	Olarte	G5

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Laudio	Saltarriaga-Launtxu	G4
Laudio	San Bartolomé-Asudui -Larra	G5
Laudio	Torrejon- Txirrieta Etxeoru	G4
Laukiz	Agirre	G5
Laukiz	Aurrekoetxea	G5
Laukiz	Elexalde	G6
Laukiz	Mendiondo	G5
Laukiz	Mentxaketa	G6
Lazkao	Lazkao	URB
Lazkao	Lazkaomendi	G4
Lazkao	Senpere	G5
Lazkao	Zubierreka	G4
Legazpi	Brinkola	G4
Legazpi	Legazpi	URB
Legazpi	Telleriarte	G4
Legorreta	Legorreta	G6
Legutio	Elosu	G6
Legutio	Goiaín	G5
Legutio	Legutio	G6
Legutio	Urbina	G6
Legutio	Urrunaga	G5
Lemoa	Arraño	G5
Lemoa	Atutxola	G4
Lemoa	Azurreka	G5
Lemoa	Bolunburu	G5
Lemoa	Durandio	G4
Lemoa	Elorriaga	G5
Lemoa	Errekalde	G5
Lemoa	Iturritxe	G5
Lemoa	Larrabeiti	G5
Lemoa	Lemoa	URB
Lemoa	Lemorieta	G5
Lemoa	Mendieta	G5
Lemoa	Txitxotegi	G5
Lezama	Aretxalde	G6
Lezama	Garaioltza	G6
Lezama	Goitoltza	G5
Lezo	Herrigain	G5

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerrria	Entitatea	Landatartasun-maila
Lezo	Lezo	URB
Loiu	Elotxelerrri	G6
Loiu	Lauroeta	G6
Loiu	Zabaloetxe	G6
Loiu	Zangroiz	G6
Mallabia	Arandoño	G5
Mallabia	Areitio	G5
Mallabia	Berano Nagusia	G5
Mallabia	Berano Txikia	G4
Mallabia	Gerea	G4
Mallabia	Goita	G4
Mallabia	Mallabia	G6
Mallabia	Osma	G4
Markina-Xemein	Barinaga	G4
Markina-Xemein	Iluntzar	G4
Markina-Xemein	Iturreta	G4
Markina-Xemein	Larruskain-Amalloa	G4
Markina-Xemein	Markina-Xemein	URB
Markina-Xemein	Meabe	G4
Markina-Xemein	Ubilla-Urberuaga	G4
Maruri-Jatabe	Erbera	G5
Maruri-Jatabe	Ergoien	G6
Mundaka	Arketa-Aranburu	G4
Mundaka	Mundaka	G6
Mundaka	Portuondo-Basaran	G5
Mungia	Atela	G5
Mungia	Atxuri	G6
Mungia	Basozabal	G6
Mungia	Berreagamendi	URB
Mungia	Billela	G6
Mungia	Elgezabal	G6
Mungia	Emerando	G5
Mungia	Iturribaltzaga	G6
Mungia	Larrauri	G6
Mungia	Llona	G6
Mungia	Markaida	G6
Mungia	Maurola	G5
Mungia	Mungia	URB
Mungia	Trobika	G6

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerría	Entitatea	Landatartasun-maila
Mungia	Zabalondo	G6
Murueta	Murueta	G5
Muskiz	Cobarón	G5
Muskiz	La Rigada	G5
Muskiz	Pobeña	G5
Muskiz	San Juan de Muskiz	URB
Muskiz	San Julián de Muskiz	G5
Muskiz	Santelices	G5
Mutriku	Artzainerreka	G4
Mutriku	Astigarribia	G4
Mutriku	Galdona	G4
Mutriku	Ibiri	G4
Mutriku	Laranga	G4
Mutriku	Mijoa	G5
Mutriku	Mizkia	G4
Mutriku	Mutriku	URB
Mutriku	Olabarrieta	G4
Mutriku	Olatz	G4
Mutriku	Urazamendik	G4
Oiartzun	Altzibar	G6
Oiartzun	Arragua	G6
Oiartzun	Elizalde	URB
Oiartzun	Ergoien	G5
Oiartzun	Gurutze	G5
Oiartzun	Iturriotz	G6
Oiartzun	Karrika	G5
Oiartzun	Ugaldetxo	G6
Olaberria	Ihurre	G6
Olaberria	Olaberria	G6
Oñati	Arantzazu	G4
Oñati	Araotz	G4
Oñati	Berezao	G5
Oñati	Garagaltza	G5
Oñati	Garibai	G4
Oñati	Goribar	G5
Oñati	Larraña	G4
Oñati	Lezesarri	G5
Oñati	Murgia	G4
Oñati	Olabarrieta	G4

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Oñati	Oñati	URB
Oñati	Santxolopeztegi	G5
Oñati	Torrauzo	G5
Oñati	Uribarri	G4
Oñati	Urrexola	G4
Oñati	Zañartu	G4
Oñati	Zubillaga	G4
Orio	Orio	URB
Orio	Orio resto	G5
Ormaiztegi	Ormaiztegi	G6
Orozko	Albizuelexaga	G4
Orozko	Arbaitza	G4
Orozko	Bengoetxea	G5
Orozko	Gallartu	G4
Orozko	Ibarra	G6
Orozko	Murueta	G4
Orozko	Urigoiti	G5
Orozko	Zubiaur	G6
Ortuella	Cadegal	G6
Ortuella	La Orconera	G6
Ortuella	Nocedal	G6
Ortuella	Ortuella	URB
Ortuella	Triano	G5
Ortuella	Urioste	G6
Otxandio	Andaparaluzeta	G4
Otxandio	Mekoleta	G4
Otxandio	Otxandio	G6
Oyón-Oion	Gorrebusto	G4
Oyón-Oion	Labraza	G4
Oyón-Oion	Oyón-Oion	URB
Pasaia	Jaizkibel	G4
Pasaia	Pasai Antxo	URB
Pasaia	Pasai Donibane	URB
Pasaia	Pasai San Pedro	URB
Pasaia	Trintxerpe	URB
Plentzia	Isuskitza	G5
Plentzia	Plentzia	URB
Plentzia	Saratxaga	G4
Plentzia	Txipio	G5

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerría	Entitatea	Landatartasun-maila
Erribera Beitia	Igay	G4
Erribera Beitia	Manzanos	G5
Erribera Beitia	Melleles	G5
Erribera Beitia	Quintanilla de la Ribera	G4
Erribera Beitia	Rivabellosa	G6
Erribera Beitia	Rivaguda	G4
Agurain	Agurain	URB
Agurain	Alangua	G4
Agurain	Arrizala	G4
Agurain	Egileor	G4
Agurain	Opakua	G5
Santurtzi	Balparda	G5
Santurtzi	El Villar	G4
Santurtzi	Santurtzi	URB
Segura	Segura	G6
Sondika	Basozabal	URB
Sondika	Izartza	G5
Sondika	Landa	G6
Sondika	Zangroiz	G6
Sopelana	Moreaga	URB
Sopelana	Ugeraga	URB
Sopelana	Ugeraga Rural	G6
Soraluze-Placencia de las Armas	Ezozia	G4
Soraluze-Placencia de las Armas	Irure	G4
Soraluze-Placencia de las Armas	San Andrés	G4
Soraluze-Placencia de las Armas	Soraluze	URB
Soraluze-Placencia de las Armas	Txurruka	G4
Tolosa	Aldaba	G5
Tolosa	Auzotxikia	G5
Tolosa	Bedaio	G5
Tolosa	Monteskue	G5
Tolosa	San Blas	URB
Tolosa	San Esteban	G5
Tolosa	Santa Lutzia	G5
Tolosa	Tolosa	URB
Tolosa	Urkizu	G4
Tolosa	Usabal	G6
Ugao-Miraballes	Markio	G4



2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Ugao-Miraballes	Ugao-Miraballes	URB
Urduliz	Dobaran	G6
Urduliz	Elortza	G6
Urduliz	Landa	URB
Urduliz	Mendiondo	G6
Urduliz	Zalbidea	G5
Urduña	Belandia	G4
Urduña	Lendoño Goikoa	G4
Urduña	Lendoñobeiti	G4
Urduña	Mendeika	G4
Urduña	Orduña Rural	G4
Urduña	Urduña	URB
Urnietea	Ergoien	G5
Urnietea	Goiburu	G5
Urnietea	Lategi	G5
Urnietea	Oztaran	G5
Urnietea	Urnietea	URB
Usurbil	Aginaga	G5
Usurbil	Kalezar	G6
Usurbil	San Esteban	G5
Usurbil	Txikiardi	G6
Usurbil	Usurbil	URB
Usurbil	Zubieta	G6
Valle de Trápaga-Trapagaran	Durañona	G4
Valle de Trápaga-Trapagaran	Elguero	G6
Valle de Trápaga-Trapagaran	Galindo-Salcedillo	G6
Valle de Trápaga-Trapagaran	Zugaztieta	G6
Valle de Trápaga-Trapagaran	Larreineteta	G5
Valle de Trápaga-Trapagaran	Matamoros-Burtzako	G5
Valle de Trápaga-Trapagaran	Parkotxa-Barrionuevo	G5
Valle de Trápaga-Trapagaran	Trapaga-Causo	G6
Valle de Trápaga-Trapagaran	Ugarte	G6
Valle de Trápaga-Trapagaran	Valle de Trápaga-Trapagaran	URB
Villabona	Amasa	G4
Villabona	Villabona	URB
Vitoria-Gasteiz	Aberasturi	G5
Vitoria-Gasteiz	Abetxuko	G6
Vitoria-Gasteiz	Amarita	G6
Vitoria-Gasteiz	Andetxa	G6

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerría	Entitatea	Landatartasun-maila
Vitoria-Gasteiz	Andollu	G6
Vitoria-Gasteiz	Arangiz	G6
Vitoria-Gasteiz	Arechavaleta	G6
Vitoria-Gasteiz	Argandoña	G5
Vitoria-Gasteiz	Ariñiz	G6
Vitoria-Gasteiz	Arkaia	G6
Vitoria-Gasteiz	Arkauti	G5
Vitoria-Gasteiz	Armentia	G6
Vitoria-Gasteiz	Arriaga	G6
Vitoria-Gasteiz	Artatza Foronda	G6
Vitoria-Gasteiz	Askartza	G5
Vitoria-Gasteiz	Asteguieta	G6
Vitoria-Gasteiz	Berrostegieta	G6
Vitoria-Gasteiz	Betoño	G6
Vitoria-Gasteiz	Bolívar	G6
Vitoria-Gasteiz	/Gaztelu	G6
Vitoria-Gasteiz	Krispiñana	G6
Vitoria-Gasteiz	Ehari	G6
Vitoria-Gasteiz	Elorriaga	G6
Vitoria-Gasteiz	Eskibel	G5
Vitoria-Gasteiz	Estarrona	G5
Vitoria-Gasteiz	Foronda	G6
Vitoria-Gasteiz	Gamarra Nagusia	G6
Vitoria-Gasteiz	Gamarra Gutxi	G6
Vitoria-Gasteiz	Gamiz	G5
Vitoria-Gasteiz	Gardelegi	G6
Vitoria-Gasteiz	Gobeo	G6
Vitoria-Gasteiz	Gometxa	G6
Vitoria-Gasteiz	Guereña	G6
Vitoria-Gasteiz	Otoarren	G5
Vitoria-Gasteiz	Ilarratza	G6
Vitoria-Gasteiz	Jungitu	G6
Vitoria-Gasteiz	Lasarte	G6
Vitoria-Gasteiz	Legarda	G5
Vitoria-Gasteiz	Lermanda	G6
Vitoria-Gasteiz	Lopidana	G5
Vitoria-Gasteiz	Lubiano	G5
Vitoria-Gasteiz	Mandojana	G5
Vitoria-Gasteiz	Margarita	G6

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerria	Entitatea	Landatartasun-maila
Vitoria-Gasteiz	Martioda	G4
Vitoria-Gasteiz	Matauko	G5
Vitoria-Gasteiz	Mendiguren	G6
Vitoria-Gasteiz	Mendiola	G6
Vitoria-Gasteiz	Mendoza	G5
Vitoria-Gasteiz	Miñao Gutxia	G6
Vitoria-Gasteiz	Miñao	G5
Vitoria-Gasteiz	Monasterioguren	G6
Vitoria-Gasteiz	Oreitia	G6
Vitoria-Gasteiz	Otazu	G6
Vitoria-Gasteiz	Otogoien	G6
Vitoria-Gasteiz	Retana	G6
Vitoria-Gasteiz	Subillana-Gasteiz	G6
Vitoria-Gasteiz	Uribarri Nagusia	G5
Vitoria-Gasteiz	Ullibarri-Arrazua	G5
Vitoria-Gasteiz	Uribarri-Dibiña	G5
Vitoria-Gasteiz	Villafranca	G6
Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	URB
Vitoria-Gasteiz	Yurre/Ihurre	G6
Vitoria-Gasteiz	Zerio	G5
Vitoria-Gasteiz	Zuhatzu	G6
Vitoria-Gasteiz	Zumeltzu	G6
Zaldibar	Eitzaga	G4
Zaldibar	Gazaga	G4
Zaldibar	Goierri	G4
Zaldibar	Zaldibar	URB
Zalla	Aranguren	G6
Zalla	Azolla	G4
Zalla	La Herrera	G4
Zalla	Mimetiz	URB
Zalla	Otxaran	G5
Zalla	Sollano-Llantada	G5
Zamudio	Aranoltza (San Antolin)	G6
Zamudio	Arteaga (San Martin)	URB
Zamudio	Geldo	G6
Zamudio	Ugaldeguren (Santimami)	G6
Zaratamo	Arkotxa	G6
Zaratamo	Burbustu-Altamira	G4
Zaratamo	Gutiolo	G4

2021eko abenduaren 30a, osteguna

Udalerrria	Entitatea	Landatartasun-maila
Zaratamo	Moiordin-Barrondo	G5
Zaratamo	Zaratamo	G6
Zarautz	Aitza	G5
Zarautz	Elkano	G6
Zarautz	Talaimendi	G4
Zarautz	Urteta	G4
Zarautz	Zarautz	URB
Zestoa	Aizarna	G4
Zestoa	Arroa Behea	G5
Zestoa	Arroa Goia	G5
Zestoa	Endoia	G4
Zestoa	Iraeta	G4
Zestoa	Lasao	G4
Zestoa	Zestoa	URB
Zierbena	El Puerto	G6
Zierbena	Kardeo	G6
Zierbena	La Arena	G6
Zierbena	La Cuesta	G6
Zierbena	San Mamés	G6
Zierbena	Valle	G6
Zizurkil	Elbarrena	URB
Zizurkil	Zizurkil	G4
Zumaia	Arritokieta	G4
Zumaia	Artadi	G5
Zumaia	Oikia	G5
Zumaia	Zumaia	URB
Zumarraga	Aginaga	G4
Zumarraga	Zumarraga	URB
<b>PARTZUERGOAK</b>		
Lurraldea	Izena	Landatartasun-maila
Araba	Badaiko partzuergoa	G4
Araba	Entziako partzuergoa	G4
Gipuzkoa	Ernio-Aralar	G4
Gipuzkoa	Gipuzkoako Partzuergo Txikia	G4
Gipuzkoa	Partzuergo Nagusia	G4

## II. ERANSKINA

### PROIEKTUA BALORATZEKO JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

#### 1.– Eskualdea.

Proiektuaren deskribapen laburra, alderdi garrantzitsuenak azpimarratuta eta inguruko garapen-mailarekiko lotura adierazita. Eragin-eremua: proiektua edo jarduera egingo den tokia (toki-entitatea). Eragina eta emaitzak: udalerrri, eskualde edo lurraldearen garapenari nola lagunduko dion proiektuak.

##### 1.1.– Kokapena eta landatartasun-maila: G4, G5 edo G6.

1.2.– Eskualdeko Landa Garapenerako Planera (LGP) egokitzea. Eremuaren garapen-maila, proiektuari dagokionez. Azaldu labur nola lagunduko dion proiektuak udalerrri, eskualde edo lurraldearen garapenari. LGPn estrategikotzat jotzen diren jarduketak, proiektuan aurreikusita daudenak.

##### 1.2.1.– Zeharkako ardatzak:

a) Genero-berdintasuna egon dadin laguntzea: azaldu nola hartu diren kontuan emakumeen eta gizonen egoerak, baldintza eta premia desberdinak eta desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzera zuzendutako helburuak eta jarduketak bildu diren.

b) Ingurumen-jasangarritasuna izan dadin laguntzea: zehaztu ingurumen-zerbitzu edota -produktuekin lotutako enpresak diren, edo ingurumeneko kalitate-sistemak (ISO 14001, adb.) inplementatu dituztenak, edo asmo hori dutenak. Zehaztu, hala badagokio, proiektuak aurreikusita ote dauzkan –eraikitze- edo ekoizte-prozesuan edota sorraraziko den zerbitzuan- ingurumena errespetatzen duten neurriak, aplikagarria den araudia baino haratago.

c) Lankidetzak: adierazi enpresak garatzen duen edo garatuko duen jarduerarekin lotura duen ohiko hornitzaile bat gutxienez, eskualdeko landa-gunean kokatuta dagoena. Adierazi zein den aurreikusitako lankidetzak.

d) Oinarrizko zerbitzuak: tokiko biztanleentzat oinarrizko zerbitzuak (osasuna, derrigorrezko hezkuntza eta haurreskolak, zahartze aktiboa...) hornitzearen inguruan jarduera ekonomikoa sortuko duten proiektuak. Zehaztu.

#### 2.– Sustatzailea.

2.1.– Nagusiki nekazaritzan diharduen emakumea, ustiategiaren titularra edo titularkidea, eta jarduera dibertsifikatzen duena. Dibertsifikazio lerrorako bakarrik.

##### 2.2.– Sustatzailearen prestaketa-maila.

– Pertsona fisikoen kasuan, ezaugarri pertsonalak eta profesionalak diruz laguntzeko eskatu den proiektua abiarazteko (curriculum vitae). Esperientzia egiaztatua antzeko proiektuetan. Prestakuntzako ikastaroak eta jarduerak.

– Martxan dauden enpresen kasuan, enpresaren ezaugarriei buruzko memoria, baita egiaztatutako esperientzia aurkeztutako proiektuan edo antzeko proiektuetan.

– Proiektua martxan jartzeko motibazioa eta helburuak.

2.3.– Sustatzaileak lurraldearekiko duen lotura. Adieraziko da proiektua zein udalerrietan egingo den eta eskatzailea zein udalerritan dagoen errolatua, edo, hala badagokio, enpresa zein udalerritan dagoen kokatua.

## 3.– Proiektua.

Laburpena: negozio-ideia zertan datzan eta proiektuaren alderdi garrantzitsuenak nabarmendu.

3.1.– Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzeko enpresa-plana.

A) Enpresaren plan ekonomikoa eta finantzarioa.

– Hasierako inbertsioak:

<b>Hasierako inbertsio plana</b>		
<b>Kontzeptua</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>%</b>
<b>Ibilgetu materiala</b>		
Eraikinak, lokalak, obrak eta lur-sailak.		
Instalazioak		
Garraio-elementuak		
Bulego-altzariak eta -tresnak		
Makineria eta erremintak		
Ekipoak eta aplikazio informatikoak		
<b>Ibilgetu ez-materiala</b>		
Softwarea		
Markak eta patenteak		
I+G+b		
<b>Zirkulatzaila</b>		
Izakinak		
Bezeroak		
<b>Finantza-inbertsioak</b>		
Gordailuak eta fidantzak		
<b>Bestelako gastuak</b>		
Traspasatze-eskubideak.		
Aurretiazko azterlana		
Eratze-gastuak (lizentziak, baimenak,...)		
Hasierako gastuak soldatetan		
<b>Guztira</b>		

2021eko abenduaren 30a, osteguna

– Hasierako finantzaketa:

Finantzaketa-plana		
Kontzeptua	Zenbatekoa	%
Baliabide propioak		
Kanpo-finantzaketa		
<b>Guztira</b>		

Kanpo-finantzaketa			
	Zenbatekoa	Interesa	Epea
1. mailegua			
2. mailegua			
<b>Guztira</b>			

– Aurreikusitako emaitzen kontua:

Emaitzen kontua.			
Kontzeptua	Saldoa		
	1. urtea	2. urtea	3. urtea
<b>Diru-sarrerak</b>			
Salmentak (bezeroak)			
Bestelako sarrerak			
Diru-sarrera finantzarioak			
<b>Diru-sarrerak guztira</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Gastuak</b>			
Erosketak			
Lokalak alokatzea			
Hornidurak (ura, argia, gasa,...)			
Izakinen aldaketa			
Kanpo-zerbitzuak			
Zergak			
Langileen kostuak			
Finantza-kostuak			
Amortizazioak			
Hornidurak			
<b>Gastuak, guztira</b>			
<b>Etekinak / Galerak</b>			

– Diruzaintza-plana.

<b>Diruzaintzako aurreikuspena</b>					
Kontzeptua	Saldoa				
	Hila (1)	Hila (2)	.....	Hila (12)	GUZTIRA
<b>Kobratuak</b>					
Kobratuak					
<b>Kobratuak guztira</b>					
<b>Ordainketak</b>					
Ordainsari propioak					
Gizarte Segurantzza					
Hornidurak					
Kanpoko gastuak					
Garraioa					
Hainbat gastu					
Alokairuak					
Aseguruak					
Mikrokredituaren kuota					
Gastu aldakorrak					
<b>Ordainketak guztira</b>					
<b>Hileko saldoa</b>					
<b>Aurreko saldoa</b>					
<b>Saldo metatua</b>					

– Hiru urterako balantzea. Atal hau ez da zertan bete, jarduera independenteen kasuan.

3.2.– Inbertsioak eta gastuak egiteko kronograma.

3.3.– Merkatuari buruzko azterketa:

- Produktuaren/zerbitzuaren deskribapena.
- Eragiketa-plana: giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta materialen deskribapena.
- Sektoreari buruzko azterketa: sektorearen ezaugarri nagusiak.
- Merkatua eta haren segmentazioa identifikatu:
- Bete beharreko premiak: negozioa abian jartzeko antzemandako premiak.
- Publiko objektiboa/Bezeroak: produktua/zerbitzua norentzako pentsatua den zehaztu.
- Lehiakideak identifikatu: lehiakideak identifikatu eta haiekiko abantailak aurkeztu.



### 3.4.– Marketin-plana:

- Produktu edo zerbitzuaren politika: produktu/zerbitzu bakoitza banatzeko eta merkatu-ratzeko modua.
- Prezioa: produktu/zerbitzu bakoitzaren prezioa zehaztu. Lehiakideen prezioekiko justifi-kazioa eta alderaketa.
- Komunikazioa: sustapen- eta publizitate-jarduerak.

### 3.5.– Lankidetzak:

- Lankidetzak-akordiorik baldin badago beste hornitze- enpresa edo -entitate batzuekin, zehaztu; eta akordioa idatziz baldin badago, aurkeztu dokumentua.

### 3.6.– Berrikuntza:

- Eskualdean edo udalerrian proiektuak zerbitzu edo produktu berriak eskaintzen baditu, adierazi. Azaldu zertan oinarritzen den berrikuntza.

## 4.– Enplegua sortzea.

Pertsona kopurua eta lanpostuak definitu. Lanpostu bakoitzeko, adierazi hauek:

- Sortze-data, sortu berri diren lanpostuen kasuan (egiaztagiria aurkeztu).
- Aurreikusitako sortze-data, sortzeko badago.
- Lanaldi mota (osoa, erdia).
- Lanpostuaren definizioa.
- Kontratatutako pertsonaren datuak: sexua, adina, helbidea, langabezian eman duen denbora, hala badagokio, eta desgaitasun-ehunekoa, halakorik badago (egiaztagiria aurkeztu).
- Sortuko diren lanpostuen datuak (aurreikuspenak): kontratatuko den pertsonaren sexua, langabezian eman duen denbora, hala badagokio, eta desgaitasun-ehunekoa, halakorik badago. Aurreikuspen hauek edozer aldaketa egonez gero, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, eta laguntzak emateko aldaketak egon daitezke. Nolanahi ere, ofizioz berrikusiko da betebeharrak betetzen diren.